

**HEZKUNTZAREN  
ARLOKO**

**POLITIKARI BURUZKO  
TXOSTENA**

# HEZKUNTZAREN ARLOKO POLITIKARI

<b>1.- SARRERA: EUSKARA ETA TEKNOLOGIA .....</b>	<b>1</b>
<b>2.- HEZKUNTZA ETA ASKATASUNA .....</b>	<b>4</b>
2.1.- Askatasunak ezagutza behar du .....	5
2.2.- Ezagutza ondare unibertsala da .....	5
2.3.- Ezagutza norberaren ondarea da.....	6
2.4.- Teknologi ikerketa eta transferentzia.....	6
2.5.- Mobilizazio orokorra .....	7
<b>3.- HEZKUNTZA ETA ETORKIZUNA.....</b>	<b>9</b>
3.1.- Hezkuntza eta garapena .....	11
3.2.- Euskal hezkuntza sistemaren eremua eta arazoak .....	12
3.3.- Eraiki behar dugun etorkizuna.....	16
3.4.- Prestakuntza integrala.....	20
<b>4.- ONDORIOAK.....</b>	<b>22</b>

*"Nola hezi adimena? Gizakiaren betebeharrak erakutsiz. Betebehar horietariko bat aberriarekikoa da: horren herririk ez duena ezin esan daiteke ondo hezita dagoenik."*  
SABINO ARANA

## 1.- SARRERA: "EUSKARA ETA TEKNOLOGIA"

Euzko Alderdi Jeltzaleak azken urte hauetan asko erabili duen azalburu honek oso mezu sakona laburbiltzen du bere baitan, guri lotuen dagoenaren egunerokotasuna eta, aldi berean, etorkizuna bermatzen duena; berezkoa eta geurea duguna eta, halaber, beste herri batzuekin amankomunean duguna. "Euskara" hitzak gauza asko adierazi nahi ditu, alde batetik hizkuntza, baina horrekin batera euskalduna erdaldunetik bereizten duen mundua, barnekoa, lotua, hurbilekoa, arimaren ingurua eta kultura; oro har, euskaldunok euskaldun egiten gaituena.

Beste alde batetik, teknologia hitzarekin bizitzaren alde materiala azaleratu nahi da, ekoizkortasuna, kontsumoa, baina beti ere ikuspegi eguneratu eta moderno batetik. Bi hitzak bata bestearen atzetik jarriz gero, bada, bizitzaren alor guztiak biltzen ditugula kontura gaitezke, guk orain arte izan dugun bilakaera historikoa eta egunetik aurrera gure bizitza izango dena lotzen dituen azalburua.

Eta esparru honetan hartuko dute zentzua hitz horiek, gure herri txiki baina handian, Euzkadin; "euskara" gure arimaren adierazpenak azaleratzeko, eta "teknologia" eguneratzeko beharrezanean aurre egiteko, gure gizarte eta ekonomi egiturak aldatu beharrezko lekuko; ez dezala inork ahaztu hori guztia baliabide natural urriak dituen Herri batean burutu beharko dugula.

Euzkadi, jakina, pobrea da baliabide eta errekurtsio naturalen alorrean, eta zerbait lortu nahi badugu, iraun nahi badugu, gure seme-alabak gure inguruko gainerako gizarteetan nagusi den ongizatean bizitzea nahi badugu, hori lortzeko hemengo gizonak eta emakumeak ditugu, ia besterik ez. Horiexek dira Euzkadiko benetako "lehengaiak".

Baina gure gizonak eta emakumeak esaten dugunean, denon egitasmoa, herritar gehienek erraz onartzeko moduko egitasmoa gauzatzen laguntzen duten norbanakoen multzoa esan nahi dugu. Gure jendeak, gainera, munduko beste kultura guztiarekin harremanak izateko gauza beharko du izan, batez ere hurbilen ditugunekin, eta hor sar genitzake Europa -maila geografikoan- eta euskal diaspora eta atzerriko euskaldunak -bihotzean-. Harreman guzti horiek berdintasunean oinarrituta beharko dute egon.

Unibertsaltasunaren leloaren bidez, gure Herriaren antzinako tradizioa adierazi nahi dugu. Europa aipatzen dugunean, herri bakar baten muga estuak gainditzeaz ari gara. Badakigu gure herriak unibertsaltasunean baino ez duela etorkizuna, herri txiki guztien antzera. Gure herriak baditu ezaugarri bereziak, baina, hezkuntzaren eremuan, herri hau Europaren barruan kokatu behar dugu, Mendebaldeko kultura anitzeko zibilizazioan, mugarik gabeko mundu zabalean; bestela egingo bagenu, estatu nagusien ikuspegi bera hartuko genuke historia eta kulturari buruz. Kultura arrotzak geureganatzea eta eleaniztasuna ere gure herriaren berezko ezaugarri izan dira, eta aurrerantzean ere izan behar dute.

Gaur egun, etorkizun egokia ziurtatu nahi badiogu gure herriari, TREBAKUNTZA nahitaezkoa da; ohiko bide horiek baztertu gabe osagarriak sortu behar ditugu, gure ardatza eta iparra izan behar duten "euskara" eta "teknologiaren" alor horietan oso-osoan garatzeko laguntza eskainiko diguten hezkuntza eta trebakuntza egiturak zuzkitu behar dira.

XXI. mendearen atarrietan gaude eta antzina gauzak indarraren porasuz lortzen baziren ere egun asko aldatu dira eta burua erabili behar da gehien bat, eta hortxe datza egungo gizarte eta politika arazorik gehienak argitzen dituen gakoa. Baina, aldi berean, gako horren barruan dago arazo guzti horien konponbidea. Gizaldi berriaren atarian nabarmena da ezagutza izango dela historiak izango duen jauzi kuantitatiboaren arrazoirik behinena -sakona eta hedakorra delako-. Horregatik guztiagatik, politika mailan har eta sor daitezkeen erabakiak eta aukerak ahanzi gabe, konponbide orok hezkuntzan oinarritzen direla esan dezakegu. Erantzuna, bai atzo eta bai gaur, baina gaur atzo baino askoz gehiago, kulturaren eta hezkuntzaren dago.

Joanak joan. Baina etorkizuna bai zaindu behar dugula. Alderdi moduan, munduarentzat onenaren bila diharduen zentzudun gizon eta emakume talde moduan ezin diogu uko egin erantzukizun horri, eta, hasteko, jakina, hori guztia hurbilen daukagun gizartearentzat eskuratu nahi dugu, Euzkadirentzat. Ildo horretatik, uste dugu trebakuntzaren mailarik altuenetara heltzen diren gizakiak askatasun maila altuagoak eskuratzeko aukera gehiago izaten dutela, hau da, burujabeak izateko eta inoren pentzutan egon gabe erabakiak hartzeko aukera gehiago izaten dutela. Eskubide hau aldarrikatu behar dutenak beren beregi askeak diren gizaki horiek dira, hala gizartearentzat nola batez ere belaunaldi berrientzat, etorkizunean nagusi izatea nahi dugun egitura horren adibide direlako.

Barkaezina da behin baino gehiagotan gertatzen dena, "Herriaren" borondatearen ahotsa direla esaten dutenak, edo herri garenik ere onartu nahi ez dutenak, hiritarren ekimen askea eta iritzia ohostuz askatasuna, giza eskubideak eta demokrazia sasiialdarrikatzen hastea. Horrelako makina bat zoritxarreko adibide ezagutzen dugu, askatasun osoa galdu duten herriak, eta zergatik-eta beste politikariek baino zarata eta oihu gehiago egin eta askatasunaren hariak ozenago agintzen duenaren eskuetan uzteagatik. Gaitz horren kontra ezagutzen den botika bakarra kultura da. Guda horretan armarik onenak trebakuntza eta informazioa dira, hiritarrari informazioaren armak ematea. Jakineza diktaduraren onerako dela esatea ez da ezer berririk esatea, edo jakineza demokraziaren kalterako baino ez dela; bada, hiritarrek gizarte demokratikoak apurtzeko arrisku horren jakitun behar dute izan eta irizpide propioak sortzeko gai ez diren bitartean "*ozenago oihu egiteko*" gauza dena hautatzen duten bakoitzean arrisku portzentaia hori biderkatu egiten dela ohartu beharko dute. Demokrazia sendotzeko era bakarra hezkuntza sistema askea eta iraunkorra da, gai publiko guztietan denon partaidetza eraginkorra sustatzea.

*"Ezagutzaren zibilizazioan"* sartzen ari gara eta nabarmena da hemendik aurrera jarduera orok izan behar duen ardatza zibilizazio hori gauzatzea eta garatzea izango dela. Horregatik, lan eskerga honetan zientzia eta hezkuntza izango dira funtsezko bi zutabeak. Euzkadin, hezkuntzaren etorkizuna Euzkadiren beraren etorkizuna da.

Ondorioz, berandu egin baino lehenago gure hezkuntza sistema osoa hobetu behar dugu. Gure abiapuntuaren ahultasuna, orain arteko bide neketsua eta azken urteotan hartutako konpromezu ugariak gogoan baditugu ere, uste dugu badela garaia hezkuntzaren arazoari bete-betean heltzeko. Gure iritziz, Euzko Alderdi Jeltzaleak, euskal erakundeen bidez, hezkuntza egokia eta osoa bermatu behar die euskal herritar guztiei. Ezinbestekoa da hezkuntza jende guztiaren eskura jartzea; hala ere, gure aburuz, hezkuntza zentroen titulartasunak ez du beti eta derrigorrez publikoa izan behar.

Are gehiago, Alderdi humanista garen aldetik, eta herritarren ekimenean sinesten dugunez, behar-beharrezkotzat daukagu hezkuntzaren arloan gizarte-ekimenari gogotsu laguntzea, bai hezkuntza-sustapenari eta irakasleen egitekoari dagokienez, baita familiek eta gainerako gizarte zibilak hezkuntza-egitasmo osoagoak lortzeko izan behar duten partaidetzari dagokienez ere.

Gaurko ereduak irakasle gehiegi ditu, eta herritarrek ezin izango diote luzaroan eutsi. Horren orde, egokiago iruditzen zaigu gizarte-ekimena oinarri duen hezkuntza-ereduaren alde sendo jokatzera; hori bai, gizarteko maila apalenean bermaturik eduki beharko dute beti zentro guztietarako sarbidea. Bultzaz dezagun, bada, gizarte-ekimenarekin hitzarmenak egiteko politika irekia, eta beka-politika eskuzabala ere bai, gizarte-ekimeneko zentroetara herritar guzti-guztiak iritsi ahal izan daitezten.

Dena den, nahitaezkoa da trenbideak geltokiak izatea: iraganetik jaraunsi dugun azpiegitura hobetzetik hasi beharko dugu eta indarreko Eskola Itunaren bidez unibertsitatez kanpoko irakaskuntzarentzako esparru berria eskaini, eman behar diren urratsak eta lortu behar diren helburuak argi edukiz gero hezkuntza hobetzeko balioko dutenak. Biharko Euzkadi gaurko irakasleek eskuratuko dute. Horregatik, oinarritzko bi betebeharrak daude: alde batetik trebatzaileak trebatzea, eta bestetik, hezkuntzaren edukinak egokitzea.

Hezkuntzak askatu egiten ditu bai gizabanakoa eta bai gizartea; hezkuntza, halaber, demokraziaren funtsezko zutabea da. Zientziak Herri osoari ematen dio askatasuna, benetako burujabetasunaren oinarriak bideratzen ditu. Zientzia eta teknika alorretako ikerketa ezin da izan, eta ez du izan behar, aurrekontuetatik zainpetzen den zaborra bat, ez dezala inork ahaztu neurri handi batean horien pentzu daudela hurrengo aurrekontuak eta herriak aurrera egitea. Industri birmoldaketak eraginkortasun hobea izango du geure teknologiaren portzentaiak gora egin ahala. Dagokigun mailan elkarlehian aritu nahi badugu funtsezkoa da sortzeko gaitasuna ekartzea, teknologia, berrizaleatasuna, diseinu erakargarriak, etab. gauzatzea. Benetako boterearen jabe direnek mugiarazten dituzten hari ikusiezinen araberako "*laneskua*" izango gara, hots, ezagutzaren jabe direnek mugiaraziko gaituzte.

Euzkadi eguneratzeak ezagutzak ekartzea eta garapen propioa eskuratzea eskatzen ditu. Eguneratzeak ez du esan nahi makina koipeztatzea, pieza berriak jartzea baino, eta ahal den neurrian, jatorrizko piezak, kanpo-merkatuan geure lekua izan dezagun, lehiarako gai izan gaitezen. Hori egiteko gauza ez bagara, beharbada Euzkadin ekoitzi egiten dela eta kanpoan saltzeko gai garela esaten jarraituko dugu, harro gainera, baina ikerketaren erronka onetsi eta arriskua beregain hartu duten herriek libre utziko dizkiguten esparruetan baino ez. Arazoa ez da gure herriaren hazkunde eta garapenaren adierazkariekin bat burutu behar den ikertze hutsa, eduki daukaguna erabiltzea baizik, erabiltzaile eta onuradunen kopurua zabaltzea eta eginera hobetzea.

Zientziaren, teknologiaren eta hezkuntzaren alorrean atzean ez geratzea garrantzitsua da oso gizarte mailan (hots, "*egiten jakitea*" eta "*jakinaraztea*"); kontutan hartu egun kualifikatuta dauden lanpostuen erdia baino gehiago teknologi berriei lotuta daudela. Gero eta gehiago sortzeko gaitasunik behar ez duten alorretan informatikak eta errobotikak gizakia ordeztzen dute. Zerbitzuen arloak, bestalde, lanean diharduten biztanleen %50a baino gehiago biltzen du. Adierazle horrek lotura argia du gizarte postindustrialaren ezaugarriekin. Materialismoaren osteko baloreen garapena da gizarte postindustrialaren beste ezaugarri bat. Hezkuntza sistemak kontutan eduki behar du hori, eta lehena izan behar du ekoizpen sistema berriak behar dituen teknologiei ikuspegi etiko eta humanistatik heltzen. Gazteak gizarte-sistema berri baterako hezi behar dira, ezagutzaren arloko enpresak ekoizpen sistemaren eragile izango dituen gizarterako, alegia; horretarako, konpromezuak bereganatzen dituzten benetako lantaldeak sortzeko beharrezkoak diren balore etikoak, humanismoa eta gizarteari lotzeko gaitasuna garatu behar dira.

Badirudi behin betiko kontsumoaren ezaugarriak eta ez ekoizkortasunarenak izango direla herrien ekonomien erritmoa ezarriko dutenak eta horri aurre egiteko lanbide mailako ahalegin eta eguneratze izugarria burutu beharko da. Irakaskuntzak bide berriak eta iraunkorrak urratu behar ditu, ezagutza berriekin eta euren eginerekin lotuta dauden ikastaro berriak eskaini. Hezkuntzaren eskaintza berriak ohiko enpleguek izan duten aldaketa sakonari egin beharko dio aurre. Ordua da ordenagailuak gure ohiko lantresnak bilakatzeko. Euzko Alderdi Jeltzaleak ikasketa plan malguak hobetsiko ditu, eta plan

horiek gauzatu behar dituztenek erabakiak hartzeko ahalmen izugarria erakutsi beharko dute. Halaber, Administrazioak erronkari eutsi beharko dio eta gai izan beharko du arin erantzuteko eta bidezko erabakiak egineraren mailara eramateko, irakaskuntza-sistemarekiko konfidantzan oinarritzeko, burokraziak eskatzen dituen formalitateak ahalik eta gehien laburtzeko eta, batez ere, a priori eskuhartzearen desegokitasunak ekiditeko.

XXI. gizaldira heldu aurretik geratzen zaigun benbora motz horretan Euzkadik apostu ausarta egin behar du maila guztietan. Beharbada orain arte beste lehentasun batzuk izan ditugu eta urte gehiegi igarotzen utzi dugu. Begibistakoak dira, besteak beste, bideetan, sanitatean, polikiroldegietan edo industri birmoldaketan egin ditugun inbertsioak. Hurrengo urte hauetan trebakuntza den guztiari eman beharko diogu lehentasuna, hala eskolarik xumeenean nola ikerketarako laborategirik sofistikatuenean. Erronka hori hartu duten planetaren beste alderdi batzuetan emaitzak argiak dira; aldi berean, gai honek duen garrantzia alde batera utzi dutenak edo aurre egiteko gauza ez direnak izan garapen hitzaren esanahiaren atzealdean geratu direla goraraztea baino ez zaigu geratzen.

Ildo horretan, eskolaurretik bertatik lehenetsi beharko da teknologiaren ezagutza. Oztopo nagusia irakaskuntzaren aldi bakoitzerako kurrikulum egokiak sortzea litzateke, eta, batez ere, IRAKASLEAK BIRZIKLATZEA, teknologiaren irakaskuntza, salbuespenak salbu, gaur egun duen hedadura txikia kontutan hartuta. Bide horretatik joko bagenu, ikaslearen heziketa osoa bermatu eta teknikaren arlora lehenago "hurbilduko" genuke; izan ere, teknika behar-beharrezkoa dugu aurrerapena eta lehiakortasuna lortzeko, jakintzaren jabe den herriak askatasun ekonomikoa duelako. Era horretara, irakaskuntzaren hurrengo urratsetan, ikasle gehienek ez lituzkete teknikoak ez diren arloak aukeratuko, eta ez litzateke areagotuko gaur egun unibertsitatearen eta irakaskuntza teknikoaren artean dagoen desoreka.

Euzko Alderdi Jeltzaleak "*euskara eta teknologia*" azalburuak trebakuntzaren alde adierazi nahi duen erronka oso-osoan hartzen du, jakin dakigulako gure sorrera eta izatearen arrazoiaren onerako dela, hots, Euzkadiren onerako; horrela, Euzkadik, aberri modura, nazioartean beteko lukeen eginkizunaren ikuspegi dinamikoa garatuko dugu.

## **2.- HEZKUNTZA ETA ASKATASUNA**

Askatasunaren kontzeptu berria sartzen ari da gizakion adimenean. Kontzeptu horrek askatasuna menpetasun politikotik askatu eta nor bere burujabetasunerako eremu berezkoak sortzeari soilik lotzen zioten muga semantikoak hausten ditu.

Askatasunaren ulerpen hori ukatu gabe, badago beste independentzia mota bat, lurraldez, politikaz edo ekonomiaz nor bere buruaren jabe izan arren, gal daitekeena. Askatasun honen arabera, ez dago ejerzitoek defenda dezaketen zedarririk, ez geografi oztoporik, ez inork mapa baten gainean zehatz-mehatz marraz dezakeen mugarik. Mugak baditu, baina haiek zeharkatzeko ez dugu behar ez pasaporterik, ez bisaturik; beti daude zabalik, hala denon onerako eta opasotasungarri direlako, baina aldi berean zaintzapean behar dute, bestela herriak bere balore nagusiak gal baititzake: nortasuna. Muga horiek ezagutzarenak dira, kulturarenak.

Duela zenbait urte nazioarteko erakundeek herri guztiak berez gara daitezen politikak egin daitezela gomendatzen dute, are ekonomiaren arloan ere.

Hala da; ekonomia bat inorenaren menpean egotea kolonialismo mota bat besterik ez da. Baina aberastasuna zer den ulertzeko, kontsumorako ondasunen ekoizpenaz gainera gizakion eta herrien kontzientzia apurka-apurka zabaltzen ari da aberastasun adierazgarri berri bat ere, gure gizatasunaren sakoneko ezaugarriei eta gure aberriaren oinarritzko edukinei dagokiena: ezagutzaren arloko aberastasunaren indizea, hezkuntza eta kulturaren aberastasunarena.

Eta faktore hori egunean baino egunean adierazgarriagoa den heinean, beraren garrantziak ekonomi azterlanetan orain arte erabateko balore legez erabili ohi diren faktoreen benetako esanahia berrikustera behartzen gaitu. Ekoizpen bolumena, esportazioena eta gainerakoak garapena mailari buruzko indize zatikakoak baizik ez dira, eta sarritan nahasgarriak gainera. Egundak besterik geroago eta ohikoagoa da herri aurreratuek laneku merkea duten herriei agintzea ondasunak ekoiztea, batez ere teknologia errazenezekin ekoiz daitezkeelarik ondore negatiborik gehien dituzten ondasunak. Ostera, ezagutzaren ahal ikustezina eurentzat gordetzen dute, hots, informazio zientifikoaren aberastasun neurtezina, ikerkuntza eta sorkuntzaren iturri oparoa. Eta horixe guztia da gaur egun, hain zuzen, "*askatasun berria*"ren oinarria.

## **2.1.-Askatasunak ezagutza behar du**

Ez da gaurkoa ezagutzak askatzen gaituelakoa. Baina, berriz, gaur egun sortu da ezagutzaz baliatuz nork bere burujabetasuna zabaltzeko, aukerak aniztu eta bere destinoa bere eskuetan hartzea ez dela norbanakoak berak soilik egin dezakeena. Orain badakigu herriek ere hori berori egin dezaketela: politikoki eta ekonomiaren arloan independentea izatea ezinezkoa da taldea ezjakina bada; herria ez da benetan askea, ogia ematen dion eskuari mun egin behar badio eta aurrerapenaren onurak jaso besterik egiten ez badu, hartan partaide izan gabe; ondasun eta baliabideez behartsu izatea txarra bada ere, are etsigarriagoa da kulturarik eza, orainaldi penagarriari etorkizun are ilunagoa ekarriko diona. Ilunagoa, zeren beste herri batzuk ez baitaude geldituta, etengabe aztertzen eta sortzen baino; hala bada, herrien arteko aldea sakontzenago ari da eta ondorioz batzuk menpeko bihurtzen ari dira eta besteak nagusi.

Beraz, ezagutzaren balio ekonomiko eta politikoaren kontzientzia hartu behar dugu behin eta betiko, norbanako gisa gure burua askatzeko duen ahalaren jakitun gaudela. Eta horretaz jabeturik, hezkuntza ezagutza belaunaldi batetik bestera igarotzeko funtsezko bidea dela ohartuko gara; horixe ulertuta jakingo dugu zein garrantzitsua den gizarte osoarentzat. Hezkuntzak oraingo gure egoerara moldatua izan behar du, bere jomugak jarrera pautak berregitera, aurrekoengandiko baloreak eskualdatzera eta lehengo informazioak hedatzera mugatzen ez dituen; aitzitik, izan jarraikako hezkuntza izan behar du, besteak beste, zientzia eta teknikaren aurrerakuntza guztiak bereganatzeko prest dagoena, gure garaiko berrikuntza eta aldaketa izpirituairen pizgarria, sorkuntzarako ahalmenak eta aztertzaile izateko gogoak lantzen dituen.

Halako hezkuntzak, laburbilduz, gogoeta honen hizpide nagusia den askatasun berria sortzeko gauza izan behar du, bere buruaren jabe den herriaren ezaugarri gisa.

## 2.2.-Ezagutza ondare unibertsala da

Behin eta berriz adierazi behar dugu ezagutza gizateriaren ondarea dela eta denona izateak norberekokeriaz haietaz jabetzeko nahikunde guztien gainetik egon behar lukeela, horren atzetik menpetasuna dagoelako. Menpetasun modu horiek arrisku oso larriak dakartzate. Beharbada, inoren menpe dauden herrien arriskurik handiena euren kultur nortasuna galtzea da. Zientzia eta teknika ezin bereiz daitezke kulturaren testuinguru orokorretik. Herri batek bere zientzia eta teknologia esportatzen dituenean, horrekin batera berea duen bizitzaren kontzeptua ere esportatzen du. Gaur egungo komunikaziobideen ahalak, enpresa multinazionalen etorrerak, turismoak etabarreko eragileek, esportaziook jasotzen dituzten herrien kalteberatasuna ziurtatzen dute, herriok, eurek ez dakitela, "egiteko moduak" ezezik "izateko moduak" ere eurengeanaitzen baitituzte, kulturari dagokionez buruaskea den herri gisa duten nortasunarekin bateraezinak diren moduak alegia. Bada, "neokolonialismo" hau da kulturaren hedapenak eta elkarreragiketak dakartzaten arriskuetariko bat, hezkuntzak ekidin behar duena.

## 2.3.-Ezagutza norberaren ondarea da

Eraberekokeria, norberaren kulturaren ezaugarriei kalte egitea eta norberaren bizimodua eta pentsakera, eta herriaren ondare amankomuna osatzen duten balore moralak aldatzea dakarren neokolonialismo zoli honen aurrean erantzuna eman behar da, baina kanpoko jakintzei eta teknikei ateak itxi gabe, nork bere-berea duenari eusteko ahaleginak eginez. Etsitzea, inorenari jazarri gabe men egitea gurea duguna kendu eta trukean unibertsala ez ematea litzateke. Azken batean, egin beharrekoa zer garen eta zer dugun ongi jakitea da, gure herriaren nortasuna zertan den bereiztea eta beste herri eta kultura batzuk elkartasunez ulertzen saiatzea. Bide horretan, testuliburuek gure Herriaren geografia, historia eta kulturaren berri zehatza eman behar dute. Askotan, euskal testuetan ere bai, beste eremu batzuetako hartzaileentzako idatzitako testuen itzulpen hutsa baino ez dugu aurkitzen. Erakundeek etengabe ahalegindu behar dute herri honen ezaugarriekin bat datorren "bertoko" materiala egin dadin.

Bada arazo bat arreta bereziz aztertu beharrekoa, alegia, kurrikulumak nork egin behar dituen, adituek ala irakaskuntza-lanetatik aldi batez liberatutako irakasleek. Kurrikulumen arazo honen haritik, kurrikulumen bikoiztasuna konpondu beharra aipatu behar dugu; izan ere, kurrikulum batzuk itxiak dira, eta beste batzuk Zentroetan osotu ahal dira, Herrialde edo eskualdearen ezaugarrien arabera.

Nor bere giroan errotzea, bere kulturaren tradizio eta baloreei atxikitzea, horrixe esker eduki dezake batek munduari eta bizitzari buruzko bere kontzeptzioa, besteekiko elkartasuna sentitzen duelarik. Bakoitzaren nortasuna sendotzeak, zein hezkuntzaren zeregina baita, oreka dezake propagandaren ahal zapaltzaileak eragiten duen alienazioa eta hark galbidean jartzen dituen baloreen suntsipena. Indar manipulatzailerik horrek gizabanakoari irizpideak ahultzea lor dezake, eta horren ondorioz hura pasiboago bihurtzen da, kirolean zein arteetan ikuslea besterik ez da: ikusmena adimenari gailentzen zaio; jendetzarentzako ikuskizunak ugaltzen dira, intimitatea ezabatzen dutenak; kontsumoak sormenaren lekua hartzen du.



## 2.4.- Teknologi ikerketa eta transferentzia

Horrek guztiak aldaketa itzela ekarri du garapenaren ohiko ulerpenean, orain garapen "*endogenoa*"ren garrantzi handia aintzat hartzen baita. Garapen "*endogenoa*" esan dugu, ez "*isolatua*". Azken urteetan ezer badago argi geratu denik, hori herri guztien artean eta, beraz, gizaki guztion artean elkarrekiko menpetasuna areagotzen ari dela da. Horregatik, burujabetasun nahikoa izateak ez dakar berekin isolamendua, ez horixe

Herri bakoitzak bere ahalmen zientifikoa eta teknologikoa zabaltzea berebiziko faktorea da ezarrita dauden gizarte-ekonomiazko helburuak lortzeko herri horrek duen gaitasuna nolakoa den jakiteko. Berezko ahalmen hori gabe, atzeratuta dauden herriak beti egongo dira inoren teknologiaren menpe eta, are txarragoa dena, inoren beharra izango dute euren burua garatzeko behar dituzten ideiak sortzeko.

Gainera, esperientziak erakutsi digu lehen ere oinarrizko zientziak irmoki ezartzea ezinbestekoa dela zientzia, oro har, eta beraien aplikazioak haz daitezen. Ikerketa da gizartearen inbertsiorik seguruena.

Ondorioz, gure azpiegitura zientifikoa eta teknologikoa garatzeko eta moldatzeko neurri zehatzak hartu behar dira; hori eginez gero, Euzkadi bere arazoak konpontzeko gauza izango da, horretarako teknikari egokiak aukeratu eta bere beharrezanetara moldatzen dituela. Egoeraren diagnostikoa egin beharra dago, eta, hain zuzen ere, txosten honetan egoeraren alderdietariko batzuk aipatzen dira. Baina diagnostikoa arloka ere egin behar da, txosten honetan azaltzen diren bideetatik modu eraginkorrean jardun ahal izateko moduko ikuspegi estrategikoak eduki ahal izateko.

Ezagutzak ekartzeko moduak jakinak dira: gure Herriaren berezko arazoak konpondu, arindu edo, hobeto, ekiditeko behar diren ikerketak egiteko pizgarri egokiak ematea; zientzien eta tekniken arloetako ikerketak garatzeko baldintza onak ezartzea eta mantentzea, horretarako metodologia egokia edukitzeko behar bezainbat ditu emanez; informazioa izateko modu azkar eta eraginkorrak egotea; eta batez ere egunean egoteko modua ematen duen langile mugikortasuna egotea.

Horrelako ezagutzak izateko, aurrez zientzilari eta teknologoak behar dira; horrelakoak sor daitezten, beharrezkoa da sorkuntza, bapatekotasun eta orijinaltasunarentzako giro egokia sortzea zientziaren arloan. Zientzilariak egotea lortuz gero (urria izanagatik, gure Herriaren heinekoa den kopurua), zientzia eta teknikaz munduko beste herrien pareko izango gara, ekarpen gutxi egin arren. Bestela, teknologiaren transferentzia eragiketa "*itsua*" da, izan ere jasotzaileak ez daki sartuta dagoen prozesuak zelako ondore eta arriskuak dituen. Ezjakinaren prezioa oso handia da batzuetan, horrelako arazoez iritzi zentzuzko emateko gauza diren zientzilari eta teknikariak prestatzeko ordaindu behar dena baino garestiagoa.

Ezagutza berriak ekarri behar dira, besteen teknologia aukeratu eta hemengo egoerara moldatzen jakin behar da eta, bereziki, herrien arteko lankidetzaren bultzatu behar da, dagoeneko baditugun ezagutzak hobeto erabiltzeko. Hala ere, azkenengo esan dugunak ez du adierazi nahi azkar eta tematien ahaleginak dohain gozatu behar dutenik loti eta nagiek. Ezta inondik ere; zeren eta, besteak beste, hori ezinezkoa baita. Horregatik, bada, herri bakoitzak ahaleginak egin behar ditu ezagutza berriak sortzeko eta dagoeneko eskuko ditugunak aplikatzeko, bere berezko garapena burutu behar du.

## 2.5.-Mobilizazio orokorra

Alabaina, garapen endogenoa gauzatu ahal izateko, funtsezkoa da prestakuntza eta zientzilari eta teknikari multzo nahikoa zabala edukitzea, horiek, zientzia aurreratu ezezik, beste herri batzuetatik datozen berrikuntzak norbereganatzea ahalbidera dezaten, gure baldintza berezietara moldatzeko. Zeregin horretan ez dugu egon behar kanpoko konponbideen zain, euskal hiritarrek jo behar dute bide horretatik, euren pentsakera eta bizi-esperientziekin, Euzkadiren preminak aintzat hartuz.

Denoi interesatzen zaigu zientziak aurrera egin dezan mundu osoan, baina ongia egitekotan norberari lehenbizikoz. Hemen bertan zientzia eta teknologiak aurrera egin dezaten lortzeko, hezkuntzari berea duen zeregina emateko borondate sendo eta irmoa behar da. Baita irakasleak egokitu eta eguneratzea, espezialitateak aniztea, hauek etengabe eguneratzea, hezkuntz orokorrean zientzien irakaskuntza sendotzea, profesionarien artean zientziari buruzko informazioa ibil dadin eta egunkari, aldizkari, irratsaio, telebistasaio eta abarren bidez hedatzea ere.

Horretarako, mobilizazio orokorra behar da, aberriaren ezagutza eta kualifikazioaren maila igoko bada. Zientziaren eta teknologiaren arloko ikerketa sustatu eta koordinatzeko, burokraziaren batere oztoporik gabe, hezkuntza eta ikerketa etorkizun hobea erdiesteko zutabe nagusiak direlako ustea izan behar da, gure erakundeek inork baino lehenago aldarrikatu duen bezala. Hori sinesten ez badugu, hartzen diren neurri guztiak aldi baterako besterik ez dira izango, datozen hauteskundeak helburu duten euskarriak baino ez, gure ondorengo belaunaldiak gogoan izan gabe hartuak.

Ikerkuntza zientifiko eta tekniko eta etengabeko trebakuntza "*nazioaren lehentasunezko helburu*" bihurtu dira Europako Estatu guztietan. Bestela, ezinezkoa litzateke etengabeko industri birmoldaketa prozesuei aurre egitea. Gure Aberriaren neurriak kontutan hartuta, hala ere, kontuz hautatu beharko ditugu hezkuntza, trebakuntza eta ikerkuntzarako inbertsio gehienak jaso behar dituzten arloak. Hautaketa horren menpe daukagu etorkizuneko askatasuna.

Argi dago lehiakorragoak ez garen bitartean oraingo baldintzetan jarraitu beharko dugula fabrikatzen, lankidetzeta-hitzarmenak eginez, multinazionalekin akordioak sinatuz. Baina, ez dezagula geure burua engaina: negoziarik hoberena beti egiten dute "*ezagutzen dutenek*", ausartu direnek, pertsona kualifikatuak darabiltzatenek, hezkuntza eta ikerketarako guk oraindik ematen ez ditugun portzentaiak ematen dituztenek. Horregatik, gaur egun langileek euren kualifikazioa hobetzeko, euren burua eguneratzeko eta berbideratzeko behar diren bideak jartzea funtsezkoa bezain presazkoa da. Gure krisia gizakien arloko krisia dela eta adimen-ahalmenetan inbertitu behar dugula ulertu behar dugu. Zientzilari, teknologo, artista, hezitzaile eta abarrak mobilizatu egin behar dira, helburua zenbait urte barru ezagutzak sortu eta hedatzeko ahalbidea eduki dezagun eta horren bidez lan eta aisialdirako baldintza berrietara moldatzeko gauza izan gaitezen, azken urteotan historia osoan baino azkarrago aldatzen ari diren bizitza-baldintza berrietara moldatzeko alegia. Dena den, orain "*astialdiaren zibilizazioa*" deritzon sartu beharrean gaudela, Euzkadik berea eman dezake eta eman behar du, bizitzaz gozatzeko moduez uste orijinalagoa, aizundu gabea eta inoren ereduari ez horren atxikia edukitzeko, izan ere bizitzaz gozatzea baita garapenaren helburu nagusia.

Gure herriarentzat bertotiko garapenak lehentasuna duela uste badugu, administrazioek aldarrikatu behar dute eta beraiek proposatu behar dituzte hori gauzatzeko mekanismoak eta erak. Baina lan hori sustatzaile gisa egin behar dute, ez kudeatzaile gisa; izan ere, zentralismoa eta ohikoak ditugun arau eta administrazio jarraibideak dira sormenaren iraultzari gogorren jazartzen zaizkionak. Enpresen

askatasuna eta ekimenerakoa sustatu behar da eta enpresa publikoa murriztu behar da, hau ezergatik ere ez baita lehiatu behar ekimen pribatuaren merkatuan, berau delako inbertsiogileen konfidantzari eta enplegu sorkuntzari indar berria eman diezaiekeen bakarra.

Langabezia, hein handi batean, gizakion berezko ezaugarriak behar ez diren lanetan gizakien ordeztu makinak jartzeak eragin du, besteak beste. Enplegu berrietan sormena erabiltzen da. Horretarako, beraz, prestakuntza dibersifikatua behar da, eta hezkuntza, eta ikerketa. Enplegu hori "*norbanakoen birmoldaketa*" oinarritzat hartu duen industri birmoldaketaren ondoriozkoa da. Ezin jarraitu dugu langileek euren indar fisiko hutsa jartzen duten lanpostuak sostengatzen. Alperrikoa da, makina haren ordeztu hobea baita, nahitaez. Gizaki-ekoizlea izatetik gizaki-sortzailea izatera dagoen transizioaren desorekak ugari izan arren, morroi gisako lanaren garaiarenak egin du dagoeneko eta aurrerantzekoa kalifikazioaren garaia izango da. Eta giroa horrela dagoela, gizarte osoak hobera egin dezan bide bakarra norbanako bakoitzak bere aldetik hobera egitea da, hau da, pertsona bakoitzak bere ezagutza oraingo egoerara eta datorrenera molda dezala.

Bada, prestakuntza eta hezkuntza gizakioi dagokigu eta orain bizi garen gizarte-ekonomiazko giroan gizakiak, edo gizaki gehienak behintzat, ohiko lanbide ohituretan sartutako "*ekoizle*" edo "*kontsumitzaile*" soil izatera mugaturik geratu dira. Egia esan, horrela ondasun material geroago eta gehiago gozatu ahal izan dugu, desorekak handiak izanik ere. Orain oparotasuna dator, baina horrekin batera baita erronka gaitza ere: gizakiak makinarentzat utzi du indarra eta are trebetasuna behar den lan oro eta hemendik aurrera bere izatean berezigarri duena hartu behar du ardatz legez, sormena alegia, adimen jarduera, orain arte beraren bizimodua baldintzatu dutenak baino iraunkorragoak diren balore eta ondasunak. Administrazioak hezkuntza-maila guztietara heltzeko bideak ezarri behar dizkie ekonomi arrazoi hutsengatik heltzeko moduan ez daudenei; horrela bakarrik lortuko da herritar guztien arteko benetako aukera-berdintasuna.

Laguntza-sistemak zabalduz joan behar dira, bai estalduraren aldetik bai finantzabideen aldetik:

- 1.- Beka-sistema ezarri behar da (familien errenten araberakoa), PFEZen aitortpena eta seme-alaben kopurua (familia ugaria) kontutan hartuta.
- 2.- Administrazioak, sindikatuek eta patronalak elkarlanean, hezkuntza-zentroen eta enpresen arteko lankidetzat bideratzeko egitamuak landu behar dute, era horretara, trebakuntza eta lanbide-jarduera batera eskaini ahal izateko.
- 3.- Administrazioak hitzarmenak egin behar ditu finantzen arloko erakundeekin, ikasketak finantzatzeko banakako laguntzak eskaintzeko.

Horraio, aldatu den eszenategi honetarako protagonistak behar ditugu. Langabezi tasa handiko egoera honetan, lan-arlori belaunaldi gero eta ugariagoak heltzen direlarik, ez zaio irtenbide egokirik ematen Euskal Herriak inoiz izan duen gazteriarik trebatuenari. Gazteak etsipenera, ilusioak galtzera iritsi litezke; gazte gehienek ez dute inoiz lanposturik izan, eta, are okerrago, langabezian gelditzeko arriskuan daude. Euskal gizarteak ezin du ezikusia egin gure gazteen etorkizuna jokoan dagoenean, Euzkadiri onenak eman behar dizkion eta, Euzkadiren geroa eraikitzen lagundu ahal izanez gero, lan ederra egingo lukeen belaunaldiaren etorkizuna. Eszenategi horretan, beraz, irtenbidea erraztu behar diegu ekimen handiko gazteei, euren kabuz bada ere lanari ekiteko prest daudenei, balore sendoetatik abiatuta helburu handietara iristeko irrikitan daudenei.

### 3.- HEZKUNTZA ETA ETORKIZUNA

Ezagutza berriak geureganatzeko prozesuaren azkartzea da gure garai honen bereizgarria, gaur egungo gertakari garrantzitsuen eta, aldi berean, ikaragarrienetarikoa. Zientzia eta teknikaren aurrerakuntzak bizimodua aldatu egin digu, ingurune gero eta trinkoago eta konplexuagoan bizi gara. Ezagutzak eta berorien aplikazioak behar bezala irakastea, horixe da "*hausnarketaren*" kulturaren funtsa, eta kultura horrek, berriz, hezkuntzan dauka oinarri nagusia.

XXI. mendearen atarian, ordena berriak, geuk oraintxe ezarri behar ditugun oinarrien gainean eratuko den mundu berri horrek, etengabe sortuz doan zerbait izan behar du. Hezkuntzak bere lekua izan behar du mundu horretan, hezkuntza baita edozein gizarte antolaturen oinarria. Izan ere, kultur heziketa ezinezkoa da ikaskuntza gabe, hezkuntzaren egitura eta garapen egokirik gabe. Baina, hori gora-behera, gaur egun atzean utzi behar dugu molde zahar hura, oraindik ere geure artean indarrean duguna, alegia, haur eta gaztetxoek urte batzuetan jasotzen duten "*derrigorrezko hezkuntza*" izeneko hori "*nahikotzat*" ematen zuen eta ematen duen moldea. Hezkuntza bizitza guztirako kontua da: etengabeko hezkuntza izateko eskubidea eta betebeharra daukagu. Horregatik dute hainbesteko garrantzia ikus-entzunezko komunikabideetatik datorkigun hezkuntzak, iritziaren arloko hezkuntzak eta kaleko hezkuntzak.

Hezkuntza sistema tradizionalak alde on asko dituzte, gaur egun ere zaindu eta bultzatu beharrekoak, baina bestalde, asko aldatu eta egokitzeko premia dute. Hezkuntza sistemak ikaslearen ingurune hurbileko edukinak bereganatu behar ditu, ikasleak egunero bizi izaten dituen eta hezkuntza prozesuetan eragingarri zaizkion gauzak, alegia. Bide horretan lan egiten ari da hala Administrazioetik nola hainbat zentrotan izandako hezkuntza esperientzietatik. Gainera, ikastetxeetan neurri batean behintzat onartuta dauden beste jarduerak horiek azpimarratu behar dira: ikasleak kultur giroetara hurbiltzen dituzten jarduerak, esaterako, museoak ikustea edo kontzertu eta antzerki emanaldietara joatea. Ateak zabaltu behar zaizkio, halaber, "*historia berria*" deritzonari, gizartearen historia, eguneroko bizimoduaren eta pentsamoldeen historia ikasi beharra baitago. Ildo horretan, telebistak zeregin garrantzitsua dauka, kultura zabaltzeko tresna modura. Baina, batez ere, euskal eskolameek ganoraz eta jarrera kritikoaz erabiltzen ikasi behar dute laster edonora helduko diren informazio-sare eta sistema berriak. Informazio-sistema berriak, informazio-sare berriak sartu behar dira eskola-egitarauetan eta ikastetxeen antolamenduan.

Irakaskuntzan, batez ere goi-mailetan, bereizketa lan handia egin behar da, hainbat lanbidetarako prestakuntza eskariari erantzuna eman ahal izateko. Bide batez gogoratu beharra dago goi-mailako heziketa eta lanbide kualifikazioa ez direla gauza bera. Lehenengoa edonoren eskura dago, etorkizuneko gizartean leku egokia bilatzeko behar den kultur oinarria bereganatu nahi izanez gero. Bigarrena, gizarteak behar dituen zerbitzuak behar bezala emateko gaitasuna erakusten dutenentzat gorde behar da.

Horrek guztiak esanahi berezia ematen dio hezkuntzari buruzko ikerketari. Erakunde asko eta asko, hezkuntz arlokoak barne direla, krisian daude, egitura tradizionalen eginkizuna berrikusten ari da, ideia berriak gauzatu aurretik hainbat saio eta prestakizun egiten dira. Une honetan, beraz, inoiz baino egokiago eta premiazkoagoa dugu hezkuntza arazoetan ikertzea. Aldaketa zabal eta sakonak behar dira, baina denbora mugatua da.

Gizakia garai berri baten atarian dago. Aro berri horretan, sormenak gaina hartuko dio eskuz egiten den lanari; nagusi izango dira, argi eta garbi, etorkizunaren aurrikuspena, geroko eszenategiak zuhur baina irudimen handiz eraikitzeke artea, eszenategi bakoitzean aukeran izango diren ekinbideak aztertzeke. Gauzak horrela, hezkuntzak esanahi berria hartzen du, izan ere, norbere eta nazioaren subiranotasuna lortu eta zaintzeko oinarrizko bitarteko bihurtzen baita. Historiak erakusten digunez, sormen urriko garaietan balore materialistak nagusitu izan dira. Azken hamarkadotan ez dugu sortzaile handirik ezagutu, enpresariak eta zientzialariak albora utzita. Baina, beharbada, sorkuntzaren aroaren atarian gaude, eta gerora begira materialismo osteko baloreak landu behar dira, izpirituari dagozkionak, gizakiak azkenaldian teknikari eta gizartearen antolaketari dagokiona menperatuta daukanez gero. Horregatik, gure sistemak kontutuan hartu behar ditu, bereziki, ekologia eta ingurugiroaren arloak, eta giza-balore baikorrenen irakaskuntza.

### 3.1.-Hezkuntza eta garapena

Gizakiaren aldeko garapena helburutzat harturik egiten diren ahaleginen artean, hezkuntzak funtsezko betebeharra du. Hain zuzen ere, gurea bezalako gizarte industrializatu eta garatu batean, gizarteko ekintza-arloek -ekonomia, politika, hezkuntza, zientzia eta kultura- emankorrek izan behar dute. Baina emankortasun hori, lehendabizi, arlo horietan diharduen jendearen gaitasun eta trebetasunaren menpe dago.

Herrialde garatueta biztanleek hezkuntza maila jaso, sormen handia eta erantzukizun eta elkartasunaren zentzua izaten dituzte. Edozein herrialderen aberastasuna, eta batez ere Euzkadirena, honek dituen ezaugarriak dituelako, izadiaren baliabideak baino gehiago herritarren kualifikazio maila izaten du oinarrian. Hor ditugu, batetik, natur baliabidetan behartsuak badira ere oso aurreratuak diren eta goi-mailako hezkuntza duten herrialdeak, eta bestetik, natur baliabideak, energia eta guzti, ugari eduki, eta hala ere gizarteko desberdintasuna eta azpigarapena ageri-agerian dituzten herrialdeak. Labur esateko, herrialde baten garapena ezin da neurtu baliabideak bakarrik kontuan hartuz; bereziki, baliabide horiek antolatu, gertutu, eraldatu edota erabiltzen dituzten gizakien kalitateari begiratu behar zaio.

Hortik ondorio hau ateratzen dugu: garrantzi handikoak dira bai hezkuntza orokor zabal eta luzea, bai lanbiderako prestakuntza, gizartean nork bere txokoa bilatu eta lan emankorra egin dezan.

Hezkuntza orokorra: Hezkuntza orokor zentzuzkoak, eraginkorrak, gizakiaren garapen osoari begira antolatua izan behar du. Horrek esan nahi du adimena landu egin behar dela, bakoitza bere buru-ahalmen eta trebetasunez baliatzeko eta inoren laguntza gabe jakintzan sakontzeko gaitasuna hartuz joan dadin. Adimena lantzearekin batera, ikaslea prestatu egin behar da etorkizunean ere ikasten jarrai dezan, etengabe eraberrituz doan munduaren eskakizunei aurre egiteko gauza izan dadin. Heziketa estetikoa ere eman behar zaio: edertasuna begi aurrean jarri, eta, are gehiago, edertasuna sortzeko ahalmena lantzen lagundu. Azkenik, heziketa etikoaren bitartez, norberatasuna eta gizatasuna, pertsonaren bi alderdiok tajutu behar dira, eskubideak ezagutu eta erabiltzen jakiteaz gain bete-beharrekiko konpromezu sendoa har dezan. Balore eta jarrera jakin batzuk (elkartasuna, desberdintasunak onartzea...) heziketaren bidez zabaltzeko ardura horrek, derrigorrez, hezkuntza sistema osoan barneratu eta haren oinarri nagusietarikoak izan behar du. Hezkuntza fisiko eta kirolaren bitartez, bestalde, ikasleak ohitura osasungarriak hartzen ditu, eta lagunartean moldatzen, inguruko jendearekiko konpromezuari eta erantzukizunei aurre egiten ikasten du.

Lanbiderako heziketa: Bestalde, hezkuntza eta garapenaren arteko loturarik estu, zuzen eta argiena lanbiderako heziketa da, hots, bakoitza bere gaitasun eta ahalbideen arabera gizartean eginkizun jakin batzuk betetzeko aukeratu eta trebatzea. Gizarteak kontuan eduki behar du hau: lanbiderako heziketa teknikoa ez da bakarrik nork bere bidea aurkitzeko lagungarri bat; irtenbiderik hoberena ere izan daiteke, krisialdia baino areago gizateriaren historiako aro berria dirudien garai honetan.

Ikuspegi horretatik, beraz, hezkuntza orokorra nahiz lanbiderako heziketa, biok bidea prestatzen diote garapen orokorrari. Garapen mota horrek batera hartzen ditu ekonomiaren hazkundera, gizartearen aurrerakuntza eta kultura; gizabanakoaren gogorik zintzoenak eta gizartearen eskakizunak batera asetzen ditu. Hala ere, aipatu dugun hezkuntza mota hori lortzeko bidean, gizarteak arazo larri batzuk aurkituko ditu: komunikabide erraldoien hedapen mugagabea; jakintzaren hazkunde erritmo zorabioagarria; ohituren krisia eta horren ondorio hondagarriak, hala nola, pasotismoa edo drogazaletasuna; edo indarkeria eta terrorismoaren arazo ikaragarria. Azken horri dagokionez, ez dakigu zer den latzagoa, odolkeria bera ala gizarteari kutsatzen dion sorgortasun eta axolagabekeria. Hezkuntza iraunkorraren premia inoiz baino argiago agertzen zaigu, zientzia eta teknologiaren aurrerapenak gogoan hartzen ditugunean. Espezializate berriak etengabe sortzen dira, errobotek eta ekoizteko tresna berriek gizon-emakumeak hainbat zereginetatik askatu eta langabetuen kopurua igoarazten dute. Gauzak horrela direla, hezkuntza iraunkorra tresna guztiz aproposa dugu, bai langileak jarduera berrietara moldatzerakoan, bai astialdia behar bezala antolatzerakoan erabil dezakeguna, astialdi horretan nork bere kultura, etika eta lanerako gaitasuna aberasteko aukera izan dezan. Bestalde, Euzkadiko politika eta gizarte oraintxe astintzen dituzten bi arazo latzak kontutan hartuta, hau da, langabezia handia eta lehen lanpostua lortzeko zailtasuna, argi dago hezkuntza iraunkorra lehentasunezko helburu izan behar dugula.

### **3.2.-Euskal hezkuntza sistemaren eremua eta arazoak**

Euskal gizartearentzat hezkuntzak duen garrantzia kontuan hartuta, erraz burura etorriko zaigun irtenbidea da hutsetik abiatu eta hezkuntza sistema, maila guztietan, ex novo antolatzea. Baina hori ezin egin liteke, eta seguru asko komenigarria ere ez da. Euzkadiko hezkuntza sistemak osagai jakin batzuk ditu gaur egun; jarduteko mugak jartzen dizkietenak, eta horiek aintzat hartu behar ditugu.

Alde batetik legezko markoa dugu. Lege nagusiak ondokoak dira: Estatuan, LODE eta LOGSE, eta Autonomi Elkartean, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea eta Elkarteko Irakaslegoei buruzko Legea. Estatuko lege orokor horiek lege-markotzat hartu ohi direnak baino zehatzagoak eta arauzaleagoak dira. Ikuspegi arauzale eta orokortzaile hori erabat kontrajarririk dago guk herri modura ditugun nahiekin, ez zaio egokitzen ezta Estatuaren planteamendu autonomistari ere. Ez dugu inoiz bera onartu, eta ez diogu uko egiten aldatzeko asmoari. Bada, lege eta arautegi horiek oraintxe hasi dira erabiltzen, eta etengabe ari dira berrikusten; hori kontutan izanik, eta, era berean, hezkuntzak euskal gizartearen etorkizunerako duen garrantzia gogoan, lege-marko horren barruan jokatzen saiatu beharko dugu, muga inguruan, harik eta bera berrikusi beharra egon arte.

Bestalde, aintzakotzat hartu behar dugu zein egoeratan ditugun hezkuntzaren bi osagai funtsezkoak: bata jaiotze tasa da, hezkuntza sistemara helduko diren neskato-mutiko, eskolome eta ikasle kopuruak, alegia, eta bestea irakasleak dira. Gauza jakina da Euzkadiko jaiotze tasak beheranzko joera hartu

duela. Matrikulazio kopurua asko jaitsi da, eta jaitsiera hori dagoeneko irakaskuntza ertainetan ere igarri egiten da.

Jaiotza kopuruak behera egin du, gurasoek aukeran dituzte irakaskuntzarako hizkuntz ereduak, eta Administrazioak ez du neurri egokirik hartzen; horrek guztiak irakasle soberakina ekarri du. Soberakina handiagoa izango da hurrengo urteotan, jaiotza-tasaren beherakadaren ondorioak irakaskuntza ertainetan eta Unibertsitatean nabaritzen hasten direnean. Lehenbailehen ekin behar zaio hezkuntza sistemak ondorengo urteetan zenbat irakasle behar izango dituen zehatz-mehatz aztertzeari; horretarako, gelako ikasle eta irakasle kopuru jakinak ezarri behar dira, Euzkadik duen ahalbide ekonomikoaren arabera. Sistema berriak orain soberan dauden irakasleetariko batzuk bereganatu ahal izango dituela onartuta ere, Euzko Alderdi Jeltzaleak uste du horiek oso gutxi izango direla eta luze gabe irakasle-soberakina gutxituz joateko neurriak hartu beharko direla.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak elkarren osagarri bihurtu ditu euskal eskola sare biak, Administrazioaren menpekoa eta gizarte ekimenekoa; eta ordura arte hirugarren sarea osatzen zuten ikastolei ere, biotako batera sartzeko bideak ezarri dizkie. Bi sare egoteak ez du esan nahi euskal eskola banaturik dagoenik; alderantziz, biak elkarren osagarritzat jotzen dira eta, beraz, sistema bakarra, euskal eskola sistema osatzen dute. Euskal Eskolaren kontzeptua sortu da, beraz, zentro guztiak bere baitan biltzen dituen kontzeptua, edozein direla euren finantzabide eta jardunbidea; hala eta guztiz ere, Euskal Administrazioak zuzeneko erantzukizuna dauka Euskal Eskola Publikoarekiko, honen antolaketa eta jardunaren ardura duen aldetik. Euzko Jaurlaritzak jarri behar du Euskal Eskola Publikoa kudeaketa autonomoaren bidean, burokraziatik urrunduz. Jaurlaritzak berak bultzatu behar ditu eskolaren baitako talde guztiak (irakasleak, gurasoak, ikasleak, Herri Administrazioa) herri zentroen kudeaketan parte hartzera, eskola eurena dutela eta euren ardurapean dagoela kontura daitezen. Oso garrantzitsua da, bestalde, herri zentroen baliabideak inguruko gizarteak duen egoerari dagokion moduan erabiltzea. Irakaskuntza-sare publikoan diharduten funtzionarioei dagokienez, arazoan antolatetari eta langileen higikortasunari dagokienez, malgutasunez jokatu behar da, eskola zentro bakoitzaren beharrezan eta hezkuntza egitasmoaren arabera. Gure Administrazioak, funtsean, bi helburuok hartu behar ditu: irakasleen erreziklapena eragitea, transferitutako funtzionario guztiak euskaldundu arte, eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea. Horrela, Euskal Eskola Publikoak kalitateko irakaskuntza eskainiko du, eta benetan publikoa eta euskalduna den hezkuntza-sarea lortuko da.

Euskal eskola sistema finantzatzerakoan gaur egun bereizketa egiten da, baina berdintzeko joera dago. Administrazioak osorik finantzatzen ditu bere eskolak; gizarte ekimeneko ikastegiekin, berriz, ituna egiteko aukera dute. Itun horrek ez du ikastegi publikoko ikasle baten kostua ere betetzen, ezta itun osoa denean ere. Badago egutegi bat itundurik nahitaez egin behar diren irakaskuntza mailak homologatzeko, Unibertsitate sartzeko unera arte.

Euskal herri-administrazioen finantzek ustez izango duten bilakaera kontuan izanik, esan dugun legez itunduta zegoen egutegia betetzeko dagoeneko sortu diren arazoak ikusirik, euskal eskola finantzatzeko sistema osoa berriro aztertu beharra nabaritzen da, eta sakon aztertu ere. Berrikusi beharrekoa ez da bakarrik zentro pribatuaren gastuen finantzaketa: baldintza eta eskaintzen sistema osoa berraztertu behar da, bai titulartasun publikoko zentroetan, bai publiko ez direnetan. Herri botereen egitekoa da batzuen eta besteen arteko aldeak laburtzea, hau da, baldintzak berdintzea hainbat arlotan: finantzaketaren arloan, eskola-orduetatik kanpoko jardueri dagokienez, partehartze demokratikorako arauetan, etabarretan. Horrenbestez, hasierako desberdintasun horretatik abiatuta, askotariko eskaintza egin ahal izango da, euskal herritar guztien aukera-berdintasuna ahalbidetuko duena.

Gainera, irakaskuntza elebiduna ezarri ahal izateko, ahalegin izugarria egin dute bai gizarteak eta bai, bereziki, hezkuntza zentro guztiek. Irakaskuntza elebiduna antolatzearekin batera, hobekuntza

kualitatiboak egin zaizkie eskola zentroi. Etengabeko ahalegin horri eutsi egin behar zaio, euskal herritarrak euskal gizarte elebidunaren partaide eraginkor izan daitezen aurrerantzean, eta eskola zentroek eraberritze-bidean aurrera egin dezaten.

Hezkuntza arloko politikaren inguruneari buruzko azalpen labur honek erakutsi digunez, bide luzea egin dugu, baina oraindik baditugu eta izango ditugu arazoak, geuk aztertu eta konpondu beharreko arazoak, hain zuzen ere.

Euskal hezkuntza sistemak, gaurko eta geroko egoerei etenik gabe egokitu eta bere eginkizuna ondo bete nahi badu, gogoan izan behar ditu beti hiru betebeharrak: aukera zuzena egitea, ezagutza eguneratzea eta ikaslearen ingurunera moldatzea. Aukera zuzena egin behar da, eskolak eskueran duen ezagutza-mordo ikaragarri horretatik. Irakasten diren ezagutzak eguneratu egin behar dira, zientzia eta teknika ere egunetik egunera aldatzen direlako. Eta hezkuntza-sistema moldatu egin behar zaio ume eta gazteek etxean, telebistan, zinean edo kalean bizi duten giroari.

Edozein irtenbide hartzen dela ere, tarteko izango dira hezkuntza sistemaren arduradunak, hau da, hezkuntza-maila guztietako irakasleak, pedagogoak eta administrazioa. Irakasleak prestatzea ezinbestekoa da, sistema osoaren giltzarria. Prestakuntzari loturik dago, irakasgaien kalitatea ezezik, beste gauza garrantzitsuago bat ere bai, ikasgeletara mugatu gabe hezkuntza prozesu osoa ukitzen duena: ikaslearen adimena ernarazten jakitea, ikasleari egun osoan eta egun guztietan ikasten irakastea. Eskolan ikasten ikasi behar da, eta ezagutza baliagarriak bizitza osoan zehar hartuko dira. Egia da, bai, beste alderdi batzuk gutxietsi gabe, irakaslearen prestakuntza dela funtsezkoenatarikoa. Ildo horretan, lehentasunak zeintzuk diren aztertu beharko genuke, eta lehentasunak nola uztartu behar diren zentroen beharrezkin, gurasoen eta gizartearen eskaria asetzeko adinako eskaintzak hautatzeko orduan. Gure ustez, alde guztien adostasunez, zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke zer eskatu behar zaion hezkuntzari, gizarteak berak ezin konpondu dituen arazoaren ardura osoa hezkuntzari egotzi beharrean. Europa gainean dugu; beraz, geure hezkuntza-labela landu beharra dugu, etorkizuneko premia eta erronken arabera, zentroen askatasuna eta gurasoen eskaria aintzat hartzen dituen. Arazo horiek guztiak sakon hausnartu behar dira, ibilitako bidea "*neurtuz*", eta hezkuntza sistemak gure Herriaren ezaugarriari eta nortasunari lotzen zaiela esateko behar beste elementu ote dituen aztertuz.

Ikaskuntzaren gaiarekin loturik, jakintzaren bilakaera azkarrak baldintzatu egiten digu erantzuteko gaitasuna. Baina bada egoera horretan beste alderdi bat, bereziki garrantzitsua, norberarentzat zein gizarte osoarentzat kostu handia dakarrelako: langabezia. Hain zuzen ere, hezkuntza eta enpleguaren arteko doikuntza eza dugu gaur egungo arazo kezkagarrienatarikoa, eta hurrengo aldiatarikoa, eta hurrengo aldiatarikoa.

Lan-merkatuaren egoera berriak gaitasun intelektualaren eta lanerako gaitasunaren arteko oreka hobea eskatzen du, hots, hala benetako bizitzatik urrun dagoen intelektualkeriatik nola lan batera mugatzen den eginera itxitik ihes egiten duena. Helburuak eta hezkuntza sistemak birplantatzea berehala egin behar den ataza da eta sormenezko irudimenari, buruenplegua sortu eta bultzatzeari lehenespina ematen hasi. Horrela, berez gizakiarenak diren jardueren jarraikako sustapena bideratuko da, sormenezko jarduerak, erabakitzea eskatzen dutenak, eta, aldi berean, makina gailentzea lortu, guk baino arinago eta eraginkorrago jarduteko gai den makina, gizakiaren besoak ordeztuko dituen. Egoera hau areagotu egingo da etorkizunean eta horri aurre egiteko ikasketak burutzeko aukerak biderkatu beharko dira, beti ere maila akademikoan baliokideak izango diren esparruetan eta gizarte mailan ospea izango dutenak. Erabat eskolaratuta dagoen nerabe multzoaren gaitasun eta interesen aniztasunak beti izan behar du edukin orokorren aukera bat, ikasgelan ilusioa galdu gabe mantentzeko bestekoa.



Ezin ahaztu helburu berriak daudela, eta helburu berri horiek egunetik egunera hezkuntza hobea eta osoagoa nahi duen gizartearen benetako eskariak azaleratzen dituztela. Horrela, bada, gero eta handiagoa den eskolaurreko hezkuntzaren eskaria, hizkuntzak nahitaez ikasi eta erabili beharra, irakaskuntza ertainaren unibertsalizazioari buruzko eskaria, ume eta gazte urritu fisiko eta psikikoen arreta egokiagoa eta eskolaratzea, etab.

Lehen esan dugunez, zenbait irakasle ez dira gauza ikasleen jakinmina eta ilusioa eragiteko. Hori eta hezkuntza sistemaren zurruntasuna dira, zuzen-zuzenean, haurra edo gaztea eskola porrotera eramaten duten arrazoiatariko batzuk, eta horri zeharrean lotuta bazterreko jarrerak, gizarteaz atekoak edo gizartearen kontrakoak, besteak beste, drogamenpetasuna, etxea bertan behera uztea, delinkuentzia edo buruaz beste egitea. Bazterreko jarrera horien protagonistak gero eta gehiago dira, eta gero eta gazteagoak; gertaera bi horiek -ikusitako dugun moduan sakonagoko arrazoi konplexuagoen pentzutan daudenak- eta familia erakundeak berez eta era ordeztuezinean dagokion heziketa lana sendo eta indartsu burutzeko ezgaitasunak, zuzeneko harremana dute. Egoera horretan murgilduta dauden familiak eskola sistemari egozten diote errua, batzuetan jarrera horiek azaltzearen erantzule edo laguntzaile direla esateko, gehienetan hezkuntza orobiltzailearen helburua har dezala agintzeko, ezagutzen eskualdaketa edo tresna gaitasunak irakastea baino gehiago dena, alegia. Lehenbiziko salaketa botatzen dutenen artean beti azaltzen da eskola sistemak garatzen dituen edukinek eta metodoek ez dutela interesik eragiten, ez dutela haurra edo gaztea ezer bultzatzen eta, horren ondorioz, eskola porrota eta horri lotuta dauden gainerako ondorio guztiak sortzen direla. Talde horiek eskola porrota gero eta jende gazteagoaren artean gertatzen ari dela eta gero eta familia mota gehiagoren artean gertatzen dela salatzen dute. Bestalde, berriro ere azpimarratu behar dugu etxeko gorabeherak zuzeneko eragina dutela gaztetxoek hezkuntzan; beraz, familia sendotu beharra dago erakunde gisa.

Horregatik guztiagatik behar-beharrezkoa da gurasoek hezkuntza prozesuan izan behar duten partaidetza eraginkorra sustatzea, guraso eta irakasleen arteko harreman aktiboak bideratzea, aldian-aldian elkarrizketa informazioa eman diezaioten. Lankidetzaren horren kalitatea eta eraginkortasunak ikasle bakoitzaren trebakuntza hobetu ezezik, eskola osoaren jardun demokratikoa ere hobetuko eta esparru horretatik hezkuntzaren alorrekoak ez diren gainerako ekimen mota guztiak baztertuko baitu.

Haurra hezi benetan bere kabuz hautatzeko gai izan dadin.. Horixe da hezkuntzaren eginkizunetariko bat: hiritarraren partaidetza sakonekoa eta zabala bideratzea. Gizakia ez da ezer parte hartzen ez duenean. Gizakia ez da inor hezia ez denean, bizitzan zehar dituen aukerak atzemateko gai ez denean eta horien artean era askean egokienak iruditzen zaizkionak aukeratu ezin dituen.

Argi dago etorkizunean areagotu eta bultzatu egin beharko direla ikastetxeetan egiten diren esloa-orduetatik kanpoko jarduerak; irakasleok beti izan dituen betebeharrak zabaldu beharko direla; lokal, baliabide eta eskola-gaien gizarte-ustiapena errentagarriago bilakatu beharko dela eskola orduetatik kanpo, asteburuetan eta oporretan. Xedea trebakuntza osagarriak eta aisialdirako aukera berriak eskaintzea da, gizarte honentzat eskola sistematik at eskuragaitzak diren gauzak, hain zuzen. Aldi berean, edukin eta egitasmoen berrikuspena sustatu nahi dugu, ikasketa planen eta egitura akademikoen malgutasuna, kurrikulum eskaintzen oparotasuna eta birgaikuntzarako aukerak ireki; hori guztia oinarri sendo eta zabalaren gainean eraiki beharko da, etorkizunean beste eguneratze eta birziklaketa lan batzuk burutzeko moduko zutabeen gainean, hots, egun langabeziari aurre egiteko dauden bide bakarrak.

Trebakuntzak eta lotuta daraman kulturak gizakiaren askatasunaren mugak zabaltzen dituzte, hautatzeko dituen aukera guztiak areagotuz eta norbera eta gizartearen eredu zabalagoekin harremanetan jarriz; laburbilduz, hezkuntzak hautapen horri ekiteko erantzukizuna bideratzen eta

sustatzen duela esan daiteke. Halaber, gogoratu behar demokraziaren oinarrizko zutabeak eta bide bakarrak hezkuntza eta kultura direla.

Askatasunezko elkarbizitzaren bila, tolerantzian, aniztasunean, partaidetzan oinarritzen den bizitzan, hezkuntzaren betebeharra funtsezkoa da. Nahitaezkoa izango da eskolako egitasmoen ikuspegiak hezkuntza sistema osoaren berri eman arte zabaltzea, jarduera orobiltzaile baten testuinguru izango den hezkuntza sistema bat, alegia. Hori guztia arlo akademiko baten zurruntasunetik at atera beharko da, ezarrita dauden egitasmo eta metodoak albo batera utzi eta egunetik egunera pedagogoen gehiago baloratzen duten "edukin iraunkorren" mailara eramanez.

Hezkuntzak badu beste erronka bat, gure Herriaren hizkuntzaren egoerak ekartzen diona. Gauza jakina da hizkuntza komunikatzeko tresna dela, baina ez da hori hizkuntza baten xede bakarra, Chomsky hizkuntzalari ospetsuak behin adierazi zuen moduan, ez da hori hizkuntza baten betebeharririk behinena. Hizkuntzaren lehenbiziko betebeharra errealitatea aztertzea da, baina hizkuntzak hiztunari ematen dion ikuspegiaren iragazkitik. Hizkuntza bakoitzak errealitateari aurre egiteko era bat du eta, ondorioz, mundu sinboliko bereiztua sortzen du. Euzkadik ere, historia osoan zehar, garatu du sinboloen kode hori, euskara, errealitatea aztertzeke tresna, humanitate osoaren ondasuna, eta garatzeko eta aurrera ateratzeko erantzukizuna Euskal Herriari dagokio. Hezkuntza sistemaren helburuetariko bat kultura eskualdatzea da; gidalerro hori bai ez dela abstraktua, eta burutzeko jarduten duen herriaren ikuspegitik jokatu beharko da, beraz, funtsezkoa izango da beren beregi hizkuntza propioa eta berezkoa aintzakotzat hartzea, guri dagokiguneari inoiz ahaztuko ez dugun beren beregiko erantzukizuna. Bestalde, egiaztatuturik dagoenez, irakaskuntza elebiduna ezarri ondoren nabarmen hobetu da hizkuntzen irakaskuntza, eta eskola zentroak eraberritu egin dira

### 3.3.-Eraiki behar dugun etorkizuna

Hezkuntzan etorkizuna hitza aipatzea hezkuntza bera aipatzea da. Hezkuntza eta etorkizuna prestatzea gauza bera da. Biharko egunerako hezitzen da, eta horrek beren beregiko arazoa sortzen digu: gizarte prozesua motelago gauzatzen zenean hezitzailearen betebeharra, batez ere, sustraituta zeuden eta mugitzen ez ziren ohiko baloreak irakasteen zetzan, belaunaldietan aldatzen ez ziren ezagutzak, bizitzan jokatzeko pautak finkoak. Gaur egun hezitzaileen ataza ez da horren erraza. Bakoitzak tradizioari eman diezaiokkeen balorea kontutan hartu gabe, egun inork ez du nahi bere seme-alabek iraganaren arabera hezkuntza jasotzea, edo areago esango genuke, bereala zaharkituta egongo diren edukin eta sistemen bidez hezitzea; aitzitik, datorrigun etorkizunari aurre egiteko hezi behar ditugu haurrak. Badakigu gizarte aldaketaren abiadura izugarriak hezkuntza irekia eskatzen duela, beharbada ezezagunari begira dagoen hezkuntza eredu eta horrek ardura sortzen du; baina erronka horrexetan datza, erabat ezezaguna egiten zaigun gizarte aldakor bati aurre egiteko prestatu behar ditugula gure haur eta gazteak, ez ahaztu orain eskolaratuko diren haurrek 2015. urtean lortuko dutela ikasketatitulua.

Horregatik, bada, mundu osoan egunean aplikatzen diren gidalerroak etorkizunari begira aplikatzen dira, une honetan ditugun joerak bihar izan daitezkeenekin erkatzen dituztenak, garapena nolakoa izango den aurrakusten saiatzen direnak. Prozesu osoan hezkuntzak arlo garrantzitsua adierazi eta irakatsi beharko digu, etorkizuna gertutu gabe etorriko zaigula; ez dago etorkizun bakarra, egungo egoera eta ezaugarriak erreferentzia gisa hartuta biharko egoerak hamaika izan daitezkeela ikasi behar dugu. Etorkizuna eraiki egiten da, ez datorrena onartu eta kitto. Etorkizuna hautatu egin behar da, aukeran ematen zaizkigun artean bat aukeratu eta gertutu egin daiteke. Hori egiteko gizaikiak trebatzearen erantzukizuna hezkuntzak hartu behar du, zentzunez jokatzeko eta hautatzeko gai izango

diren gizakiak, ikuspegiak zabaltzeko irudimena erabiliko dutenak, erabakia sortzeko gauza. Dena den, bide luze horretan hezkuntzak argi utzi beharko ditu hainbeste gai.

Euzkadin etorkizunari begira egin behar dugun hezkuntza apostuan irizpide edo gidalerroren bat argi uztekoan, kalitatea azpimarratuko genuke. Kalitateak ez du esan nahi ekonomi baliabide hobeak, egon daudenak erabiltzen jakitea baizik. Kalitateak bezeroak dituen beharriaz aurre egitea esan nahi du, hartzailea pozik uztea, eta inork ez dezala ahaztu hezkuntzaren kasuan hartzaileak gure neska-mutilak direla, irakasleak, unibertsitatean daudenak, eta horien bidez, euskal gizartea eta bere etorkizun osoa. Kalitatea hobetzeko, gure unibertsitateari dagokionez, gizarteko eragile nagusiek, besteak beste, enpresek eta ekoizpen-arlo guztiek, Unibertsitatearen ebaluazioan eta plangintzan parte hartu behar dute.

Irizpiderik behinena den kalitate horrek etengabeko hobekuntza prozesua eskatzen du, inertziak gainditzea, irtenbide berriak bilatzeko ahaleginak egitea, norberak bere buruari jarri dion muga gainditzea. Kalitate hori ezin da dekretuaren bidez ezarri, bera lortzeko bide bakarra eskola sistema osoko jarduleen benetako konpromezua delako, gurasoak barne. Gurasoen partaidetza hezkuntzako prozesu guztietan gertatzea garrantzitsuagoa da etorkizuneko belaunaldientzat, eskolaz kanpoko jarduera antolatzeari ekingo zaiolako, batez ere ikusentzunezkoak.

Euskal hezkuntza sistemaren kalitatean maila hobeak eskuratzeko, nahitaezkoa da abiapuntutzat funtsezko elementu batzuk hartzea. Lehenbizikoa kurrikulumen malgutasuna litzateke. Egungo zientziaren eta teknologiaren garapenaren egoerak argi eta garbi azaltzen du ezinezkoa dela gertatzen ari diren aldaketa guztiei berehala erantzutea, ezinezkoa dela egun zientzi eta teknikak duten hazkundearen izugarriko erritmoari eustea.

Azalpen hori ez da aitzakia ezagutzak eskualdatzeko aukerari uko egiteko edo hezkuntzaren kalitatearen erantzukizuna ekiditeko; hezkuntzan jarduteko ditugun egiturak aldatzeko arrazoi ezin hobeak da. Jakintza metatzeko erritmo gero eta azkarragoek eta ezagutzaren inguruan gertatzen diren aldaketek teknika eta zientziaren mundu aldakorretako ateak irekitzeko oinarrizko elementuak euren gaitasunak balioko dizkie belaunaldi berriei. Hezkuntzaren etorkizunean garrantzitsua izango da oso belaunaldi berriek goitik behera ezagutzea oinarrizko gaitasunak: hizkuntzen ezagutza, matematikaren alorrekoak, historiakoak, teknologiaren tresna berriak. Baina gero eta zentzu gutxiago dute ezagutza multzo zarratuek, kurrikulum borobil eta bukatuek; izan ere, ezagutza eta kurrikulum horiek baztertzekoak ez diren arren, berehala gera daitezke zaharkituta, eta ikasleei denbora gehiegi eskatu eta errealtateari moldatzeko malgutasuna eragozten diete.

Baina kurrikulum malgua lortzeko nahitaezkoa da oinarrizko gaitasunaren alorra oso ondo lantzea; horri esker, etorkizuneko belaunaldiek jakintzaren mundu aldakorrean murgiltzeko gaitasuna eskuratzeko dute eta mundu aberats eta oparo horretan mugitzeko gauza izango dira.

Kurrikulumaren malgutasunaren aldeko apostuari ekiteak txosten honetan laburbilduz baino aipatuko ez ditugun ondorioak eragingo ditu. Kurrikulumaren malgutasunak, ezinbestez, ikastetxe bakoitzaren autonomia nahikoa beharko du gauzatzeko. Hezkuntza egitasmoa eta berriz ere azpimarratu nahi dugun oinarrizko kurrikuluma abiapuntutzat hartuta ikastetxe bakoitzak dagokion autonomia erabili beharko du eta bere kurrikulumaren eskaintza egin, beti ere aukera orokor askoren artean. Kurrikuluma tajutzeko autonomia (osoa izan ez arren) horren ondorioa eskaintza bereiztuak izango dira, eta horien artean hautatzeko dute gurasoek, eta hala denean, ikasleek, beti ere, zentroetako egoerei egokituak egutegiak erabiliz, zentroek eskaintza autonomia egin ahal dezaten; irakasleak erreziklatzeko ereduak erregularizatu behar dira, eta behar besteko laguntza tekniko eta pedagogikoak ezarri behar dira, zentroen eskaintzen lehiakortasuna eta garapena lortzeko, baita, eredu zentru batzuetan, mailaz mailako esperimentazioa bideratzeko ere. Horrek guztiak badu beste ondorio bat,

elkarlehia sustatzea, azken batean hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza ekarriko duen elkarlehia. Autonomia horrek antzekoa izan behar du zentro publiko zein pribatueta; beraz, berrikusi egin behar dira gaur eguneko arauak. Autonomia horrek, nahitaez, zentroen kudeaketaren profesionalizazioari loturik joan behar du, batez ere sektore publikoan. Kurrikulumaren malgutasuna, ikastetxe bakoitzaren autonomia osoa, eskaintza desberdinak eta elkarlehia dira, bada, hezkuntzaren kalitatearen alorrean elkarlotuta dauden arrazoi-ondorioen multzoa eta ziur gaude horixe dela Euzkadiko hezkuntza politikak hartu behar duen bidea.

Euzko Alderdi Jeltzaleak hezkuntza politikaren gidalerroa kalitatean oinarritzea nahi du; halaber, kurrikulumaren malgutasunak eta eskaintzen aniztasunak eskatzen duten erronkari egin nahi die aurre, kontutan hartuta horrek guztiak irakaslegoaren zuzperketa eta trebakuntza eskatzen duela.

Egun irakaslegoaren prestakuntza, kontratazio sistema eta lanpostuen esleipena ohiko kurrikulumaren sistemari lotuta daude. Etorkezunean beste bide batetik jo nahi badugu lehenbiziko urratsa, nahitaez, irakasle goazuzperketa izango da, irakasle horiek izango direlako bide berri hori urratzeko konpromezua hartu behar dutenak. Erronka horrek irakasle balioaniztunak eskatzen ditu, ikasleei arestian behin eta berriro aipatu dugun jakintzaren mundu aldakorrean "mugitzeko" aukerak azaltzeko gai izango direnak; irakasleek ez dute izan behar jakintzaren esparru estu eta zehatz batean alde aurretik ezarrita eta finkatuta dauden ezagutza multzo baten jakinarazle hutsak. Irakaslearen tipologia berak ere goitik behera aldatu beharko duela gaude eta jatorriz jasotzen duen trebakuntza irakasle balioaniztun horren tipologia berria lortzera bideratuta egongo da; irakaslea, hortaz, oinarritzko gaitasunak transmititzeko gai izango da, baina era eraginkorrean, hots, irakasle berriak jakintzaren mundu aldakor horren leihoak belaunaldi berrientzat zabaltzeko gai izan beharko du; ikasleari eragiteko, ikasgaiarekiko ilusioa eta jakinmina pizteko gai.

Kurrikulumaren malgutasunak eta irakaslegoaren tipologia berriarekin sortuko den hezkuntza egoera berriak, hala ikastetxeetan egiten dena nola irakasleek egiten dutena, laguntzeko eta ikuskatzeko egiturak beharko dira tajutu. Gauza biak dira beharrezkoak: laguntza eta ikuskaketa, azken hitzak duen zentzurik osoenean ulertuta, hots, kargutu eta lagundu. Kurrikulumaren malgutasuna eta irakaslegoaren tipologia berria ikuskatzailerak era eraginkorrean jarduten duenean eta orduan baino ez da lortuko, eta jakina, horrekin bat hezkuntzaren kalitate on hori. Kurrikulumaren malgutasunaren oinarria den autonomiak erantzukizuna eskatzen du, eta erantzukizun hori ezinezkoa litzateke kontuak inori azaldu gabe, ikuskatzailerak eta laguntzarik gabe, alegia.

Gauza nabarmena eta jakina da ezagutzaren aurreraegite arin hori dela gure garaiko kulturaren ezaugarri behinena. Ez dago mundu osoan prozesu hau alde batera utzi eta aurrera egin dezakeen herririk, behintzat zientzia eta teknikaren alorrean besteen menpe egoteak nahitaez ekartzen duen kolonialismo berriaren erori gabe; bestalde, argi dago horrela jokatzeko burujabetasuna berehala erabat galtzeko biderik onenetarikoa dela. Eskola sistemaren edukinek eta metodoek zientzia eta teknikaren berritasun guztiak eurenganatu beharko dituzte. Beste alde batetik, ahalegin berezia egin behar da ikasleek bizitan zehar eskura izango dituzten informazio-iturriez baliatzen ikas dezaten; ondorioz, gaur egun irakasten diren gaietarikoz bazuena edukina murriztu egin beharko da. Beste lanbide bazuetarako ondo kalkulatu dago zazpi urterik behin edo arinago aldatzen direla edo aldatu behar direla ezagutzak eta teknikak, ezer gutxirako balioko luke, bada, une jakin bateko ezagutzak transmititzeko baino balioko ez lukeen hezkuntza sistema batek, baldin eta etengabe aldatzen diren ezagutza eta teknika horiek etorkizunean eskuratzeko prestakuntza egokirik ematen ez badu.

Dena den, noiz edo noiz hiritarrak eskola sistema utzi ere egin beharko du. Beraz, garrantzitsua izango da birgaikuntza sistema hori eguneratuta eta hobetuta izatea eta hezkuntza sistema malguen bidez -hala jarraikakoak, nola paraleloak edo aukerazkoak- hiritarrarengandik hurbil izatea eta ziur egon azken hau etorkizun hurbilean hezkuntzak izango duen aldaketa alorra izango dela. Baina,

halaber, gizarte mailako komunikabideak ditugu, batez ere irratia eta telebista (eta azken hori kable eta satellite bidez garatzeko zorian); mikroelektronika eta telematika ditugu, datutegiak eta ordenagailuak etengabe hazten ari dira. Horiek guztiak heziketa autodidaktaren iturri amaituezina bilakatuko dira, baina egun artean ikasgeletan dauden belaunaldiei eta laster sartuko direnei baliabide guzti horiei etekinik onena ateratzen irakatsi beharko zaie. Gure garaian zientziak aurrera egiteko duen erritmoak berak eskola sistemaren arreta berezia eskatzen du atzean ez gelditzeko, hots, sormenerako joera eta desberdin pentsatzeko gaitasunak sustatzeko; ezaugarri horien aldamenen jarriko genituzke iraganeko hezkuntzak eta oraindik egun indarrean dagoenean nagusi den jasotzeko eta metatzeko gaitasunak. Egungo gizarte-aldaketak ezarritako baldintzetara moldatu ahal izateko, teknologian ezezik, giza zientzietan eta arteetan trebatzen duen hezkuntza behar dugu. Gizarte berri honetan gizon eta emakumeek sormena behar dute, eta sormena garatuko badute, kultura humanista zabala eman behar zaie; horrela, euren existentziaren inguruko funtsezko galderei erantzuteko gai diren gizaki heldu bihurtuko dira.

Bide horretatik, bertan behera utzi behar da hezkuntzaren alorrean gaizki ulertu izan den berdinaletasuna. Hezkuntzari dagokio jatorrizko desberdintasunak orekatzea, behartsuenen aldeko bereizketaren printzipioa gauzatzea. Baina horrek ez du esan nahi beti ahalik eta gutxien eskatu behar denik eta denei neurri berean eskatu behar zaienik. Sistemaren betebeharra da trebeenei euren gaitasun guztiak garatzeko aukera ematea. Hezkuntza sistemak eta zentroek betebeharrak hori onartu behar dute.

Beste alde batetik, arestian aipatu dugun moduan hezkuntzaren prozesua ia hiritarraren bizitza guztira hedatu behar bada argi dago eskolatik irten beharko duela. Kurrikulumaren malgutasuna dela eta, eskolaz kanpoko uneak beren beregi integratu behar dira hezkuntza-prozesuaren barruan, antzinako sistema zaharkituan baino askoz ere gehiago behintzat; gainera, lehen ere adierazi dugun moduan, gurasoek zeresan gehiago izan behar dute hezkuntzaren atzetan.

Hezkuntza sistemaren bi funtzioak aipatu ditugu, alde batetik ezagutzak jasotzeko eta sortzeko erraztasunarena, eta bestetik kultura transmititzea eta nortasun propioa garatzea. (Bi funtzio horien arteko sailkaketak ñabardura asko ditu eta komeni da argitzea. Momentuz nahikoa da esatea ñabardura horiek egon daudela). Euzko Alderdi Jeltzaleak hezkuntzaren alorrean egin duen apostua ez du inola ere bigarren funtzio hori alde batera uzten.

Hezkuntza sistemaren bidez gizarte elebidunaren oinarriak ezarri nahi ditugu. Euzko Alderdi Jeltzaleak hizkuntz ereduaren etengabeko egokitzapena bultzatuko du, haien sorrerako helburua lortzeko: euskal herritar guztiak Euskal Herrian dauden hizkuntzak erabiltzeko gai izatea, eta euskararen normalizazio hain desiratua lortzea. Horretarako, hizkuntz normalizazioaren xedean kontutan izanik, EAJk euskara sarriago erabiliko du zerbitzuetan, erakunde arteko harremanetan eta, ahal dela, barne-lanpostu elebidunetan. Gure hezkuntza sistemak hizkuntz ereduak ditu. Hizkuntz ereduak euskal herritarrek hala euskaraz nola erdaraz (gaztelerez edo frantsesez) gaitasunera heltzeko dituzten tresnak dira. Ez dute zertan sistema itxi eta mugigaitzak izan, hezkuntzaren prozesuan zehar batzuek besteekin zerikusik ez dutenak. Kurrikulumen malgutasuna eta zentroen autonomia direla bide, hizkuntz eredu horiek kasuan kasuko inguruari egokitu zaizkio. Garrantzitsua helburua eskuratzea da: hizkuntz gaitasuna. Ereduak xede horretara heltzeko tresnak baino ez dira.

Hizkuntzak ikastea premiazko helburu bihurtu da gure gizartean. Teknologia berriez eta elkartrukerako aukeraz baliatu beharra dago hizkuntzen irakaskuntza eraginkorra lortzeko. Kultura anitzeko ingurune berri honetan, hizkuntzak jakitea xedetzat hartu behar da.

Euzko Alderdi Jeltzaleak hezkuntzaren aldeko apostua egin du, Euzkadiko ekonomi eta gizartearen garapenaren funtsezko zutabea delako; baina erronka horrek gure hezkuntza sistemaren arazoren batzuk ez ahaztera behartzen gaitu, kasurako Unibertsitatean gertatzen ari den jende pilaketa.

Ezinezkoa da, eta gainera ez da komeni, irtenbideak ematea mediku batek errezetak luzatzen dituen moduan, baina arazoari aurre egin behar zaio. Adibide bat jartzearen, ondo aztertu beharko da zer dela eta euskal gizarteak, proportzioan, Alemaniak baino ikasle gehiago duen unibertsitatean, eta zama hori eramangarria gertatzen zaigun ala ez; hots, aztertu egin beharko da hezkuntza sistemaren barruan desorekaren bat azaltzen den.

Unibertsitateko ikasle-pilaketaren arazoa, neurri batean behintzat, Lanbide Heziketa bultzatuz konpon liteke; ikasketa horiek bigarren mailakoak direlako ustea baztertu eta jendeak lanpostua aurkitzeko bideetat har ditzan lortu behar da.

Ildo horri loturik, ondokoa aztertu beharra dago: euskal hezkuntza sisteman, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleen artean proportziogabetasunik ez ote dagoen, gure unibertsitateko sisteman irakaskuntza teknikoetako ikasleenganako proportziogabetasunik ez ote dagoen. Eta, horrez gain, aztertu behar da egoera horrek gazteen langabezia eta gazteek enpresarekiko erakusten duten geldotasunean inolako eraginik duen.

Ez du zentzurik industri tradizioa dugula adierazteak, bitartean lanbide heziketa eta heziketa teknikoa indartzen ez baditugu. Euzko Alderdi Jeltzaleak Euzkadiren etorkizunerako irakaskuntza tekniko guztien alde egingo du apostu, eta bereziki, lanbide heziketaren alde. Horretarako ezinbestekoa da lanbide heziketa Unibertsitate irakaskuntzaren ordezkari bide duin eta erakargarri modura aurkeztea. Bide hori zabaltzeko, besteak beste, oinarritzko neurri hauek hartu behar dira:

- Batxilergotik Lanbide Heziketara igarotzeko bideak erraztu eta sendotzea.
- Lanbide Heziketa bera sendotzea, baita goi-mailakoa ere, unibertsitate-mailakoa ez izan arren.
- Lanbide Heziketa unibertsitate irakaskuntzari lotzea, lotura malgu eta praktikoen bidez.

Unibertsitatea edozein hezkuntza sistemaren gailurra da, eta bertatik ikerkuntzaren munduan sar daiteke. Guk hezkuntza sistemarako dugun gidalerroa kalitatea da, eta hori ezartzen badugu, bi ondorio, gutxienez, izango ditugu: denontzat aukera berdintasuna lortzeko baldintza eraginkorrak ezartzea bezain garrantzitsua da ohartzea hezkuntzaren bidean erlazio prozesu bat egin behar dela, gaitasunak kontutan harturik. Ikasketetan izandako lorpenen bidez, aurrean ibili nahi duen herri batek beharrezkoa duen jakintsu-elitea eratuko da; dena den, etorkizunerako irtenbidea eman behar zaie lanbiderako prestakuntza teknikoan gailurrera iristen ez diren guztiei, horiek ere zeregin garrantzitsua izango dutelako lan-arloan eta gure herriaren etorkizunaren eraiketan. Azkarrenak hautatzea eta unibertsitate prozesu guztietan gaitasunaren eta kalitatearen printzipioa ezartzea irizpide nagusitzat hartu behar dira Unibertsitateko jardueran. Jarduera hori irakaskuntzaren eta gizartetik datorren eskariaren arteko orekan oinarritu behar da.

Administrazioak hartu beharko duen edozein erabakik, beraz, kalitatearen printzipioa eta hautaketan oinarritzen den printzipioa.

Hortaz, etorkizunari buruz jarduten dugun heinean, aipaturiko fenomeno bati buruz hausnar egin behar dugu. Hitz egin dugu langabeziaren eta azpienpleguaren egoera latzari buruz eta esan dugu hezkuntza sistematik irten berri diren gazteei eta, apurka-apurka, langile eta profesionari helduei eragiten diela, batez ere, azken horiek lana utzi behar izan dutenean eta enplegu berria aurkitzeko zailtasunak izan dituztenean edo, bestela, denboraz aurreko jubilazioa jaso dutenean. Eta medikuntzak aurrera egin eta bizi baldintzak hobetzen diren heinean, hirugarren adinekoek gero eta luzaroagoan bizi ahal dira, burua argi dutela.

Inolako zalantza-izpirik gabe, aipatu dugun horretan inguruabarrek badute eragina, ekonomiaren krisiari dagokiona. Baina gero eta argiago dago kariak egituraren oinarriturik daudela, eta kari horiek eragin dutela arazoaren zati garrantzitsu bat. Zientzian eta teknikan egin diren aurrepausuei esker, lanpostuak sortzen dira eta, aldi berean, tresnak sortarazten dituzte, gero eta enplegatu gehiagoren ordeztarazten direnak. Ondorioz, ez dira nekazaritza eta industria lanetan gutxiago behar duten bakarrak, teknika berriak erabiltzen dituztelako eta langile gutxiagorekin ekoizpen handiagoa lortzen dutelako. Zerbitzuen hirugarren sektoreak azken hamarkadotan lanetan hori hartzen zuen eta orain, ordea, lanetan gehiegi dauka. Antolakuntza eta automatizazio sistema berriek ondokoa izan behar dute kontutan: nahiz eta ekonomiaren krisia gaititu, mailakako jubilazioa eta lansioa murriztea nahitaez onartu beharko direla.

Hezkuntzak berak ere, enplegurako jendea prestatzeko zenak, arazo horri aurre egin beharko dio; hortaz, desenplegurako hezkuntza bultzatu beharko da, bai lanbide birmoldaketa errazagoa eta malguagoa izan dadin, bai gizarteak zein gizabanakoek astialdiatik ahalik eta probetxamendu handiena atera dezaten.

### 3.4.-Prestakuntza integrala

Orain arte, hezkuntza sistemaren bi eginkizuni buruz jardun dugu: ezagutzaren eskualdaketa eta sorkuntza, eta euskal kultura eta nortasuna zaintzea eta garatzea. Gaur egun, hirugarren eginkizun bati buruz hitz egin behar da: balioen transmisioa edo balioen hezkuntza. Eginkizun horrek tratamendu berezia behar du, hau da, balioen transmisioak edo hezkuntza beste bi eginkizunetatik bereizturik dago, gainera, balioen transmisioaren eta balioen hezkuntzaren arteko esanahiari buruzko zalantzak ditugunez gero, esan behar da hezkuntza eta balioen binomio horretan arazoren bat dagoela.

Txosten honetan, Euzko Alderdi Jeltzaleak hezkuntza terminoa hautatu du beren beregi irakaskuntzaren ordeztaraz. Beraz, Euzko Alderdi Jeltzalearen ustez, heztea ez da irakastea edo ezagutza batzuk eta kultura transmititzea; aitzitik, hori baino gehiago da eta bertan balioek zerikusi handia dute. Baina Euzko Alderdi Jeltzaleak ez du hori itsu-itsuan hautatu, baizik irakaskuntza, hezkuntza eta balioen artean dauden arazoez ohartu ondoren egin du.

Zientzi eta teknika ezagueren sistema lortzeko, balioen eskema bat behar da. Kultura modernoa, eta gu horren barruan gaude, eraiki ahal izateko, tradizioko balio asko hondatu dira eta tradizioa bera ere baliogabetu egin da. Kultura modernoak sortarazi eta gizarteratu nahi izan dituen balio berri asko eta asko gerrek, kolonizazioek eta diktadorek baliogabetu dituzte. Oraindik geratzen diren balio batzuek, hala nola, jasamenak, elkarrenganako begiruneak, elkartasunak, iraun egin dute, edukin jakin batzuetako balio gisa baino araupeketarako ideia gisa jarduten dutelako. Baina egoera horrek ez du esan nahi balioen hezkuntza gutxiago izan behar dugunik, baizik eta gehiago izan behar dugula, nahiz eta jakin balio horiek orokortzeko arriskua dagoela.

Baina hortik abiatu eta aipatu ditugun bi printzipioak onarturik, Euzko Alderdi Jeltzaleak balio jakin batzuen heziketan oinarritzen den hezkuntzaren alde egingo du; balio horiek ondokoak dira: norberaren tradizioa ezagutzea eta zaintzea; gizakien edozein kultura sorkuntzagatikoa; jakinmina eta zabaltasuna erakustea; gizarte jakin batekoa zarelako kontzientzia izatea, baina bertara soilik mugatu gabe eta beste batzuk gutxietsi gabe, eta gizarte hori mugatzen ez hartzea baizik eta besteekin parte hartzeko tresnatzat; lana eta ondo egindako lana maite izatea; lanaren etika eta

enpresa-ekimenerako gogoia; hirietako eta herrietako gauzak, guneak zaintzea eta bai natura bera ere; naturarenganako begirunea, zeren eta bera behar baitugu bizitzeko eta ezin dugu mugarik gabe ustiatu; eta, batez ere, bizitzarekiko eta gizaki bakoitzarekiko begirunea, bakearekiko begirunea.

Eta hori dena egin behar dugu, jakinda balio horietarik bakoitzaren azalpenak denon arteko subjektibotasunaren indarra falta duela eta, beraz, gizarte errealtatearen indarra. Eta jakinda arlo hori landu eta garatu behar dugula, gaiei eta kurrikulumei dagokienean. Kurrikulumak garatzea eta erabiltzen hastea behar-beharrezkotzat jotzen dugu, eta hainbat eremutarako balio izango dutela uste dugu. Horrenbestez, beharrezkoa eta premiazkoa da hezkuntzaren bidez gazteengan sentimendu horiek lantzea, elkarrizketa eta eztabaida prozesu baten bitartez eta gurasoen eta hezitzaileen aginpide moralaren bitartez, zeren eta guk ez baitugu aginpide hori ukatzen, baina apurka-apurka eta ardura handiz lortu behar dela adierazten dugu.

Beste ildo batetik abiatuz, argi dago Euzkadin, mendebaldeko beste hainbeste tokitan bezala, gizakiak gero eta astialdi handiagoa duela; sarritan esan ohi da "*denbora igaro*" behar dela, zeren eta batzuetan ez baikaude prestatu denbora ahalik eta ondoen igarotzeko arte, prestakuntza, kirol, josteta, gizarte partaidetza edo erkidego lankidetzarako jardueretan.

Gizakia prestatu behar dugu, gizaki-makina, gizaki-egunerokoa izatetik, hori baino areago gizaki sortzaile, gizaki erabaki-hartzaile izatera igaro dadin; hau da, gizakiak, ahal den neurrian, gizaki guztiei, eta ez batzuei bakarrik, dagokien bizimodua izan dezan, giza gaitasunak ahalik eta gehien gara ditzan.

Beraz, hezkuntzari dagozkion alde batzuk besterik ez ditugu aipatu. Beste alde batzuk, adibidez, gizarte-ekonomi baldintzengatik edo sexuarengatik egiten diren bereizkerienganako gizarte sentiberatasuna aipatu baino ez ditugu egin, nahiz eta beti ere gogoan izan.

Laburbilduz, badirudi gizakiaren garapen integrala beharrezko helburua dela, gutxi batzuen ongizatea besteen txirotasunaren lepotik edo ingurugiroren narriadura geldiezin eraginez gerta ez dadila bermatzeko. Garapen oso horrek, gure kasuan, Euzkadiren norabidea azaldu beharko die bai gaur egungo belaunaldiei, bai bihar-etzikoei, berezko era bateratuan eta elkartasunean.

Eta egitasmo honek ekonomia eta kultura, tradizioa eta aurrerapena, zientzia eta jokabideak, berezko garapena eta elkartasuna, prestakuntza osoa hartzen ditu; gainera, garrantzitsua da eskola-umeei lagunduko dizkien argibideak ematerako orduan, zeren eta horiei esker umeei beraien balio moralen kodea eratuko baitute. Beraz, egitasmo hau benetan erronka garrantzitsua da. Erronka horri euskaldun guztiok bilatu behar diogu erantzun onuragarria.

#### **4.- ONDORIOAK**

Euzko Alderdi Jeltzalearen iritziz, etorkizuneko euskal gizartearen eraikintzari begira, gizarte erronka eta lehentasun osoko erronka nagusia hezkuntza bera da. Gure aburuz, gizarte eta politikaren ahalegin guztiak hezkuntzaren eremuan kokatu behar direla esatea gehiegikeria da, baina, ordea, ez da



gehiagikeria esatea gure hezkuntza sistemaren etorkizunean dagoela zati handi batean Euzkadiren etorkizuna; bai hemengo teknologia eta ekoizpenaren geroa, bai gizakiena eta gizarte osoarena ere.

Gizarte eta politika erronka eskerga horri aurre egin ahal izateko, Eusko Alderdi Jeltzaleak badaki jarduketa aukera guztiak eta gaur egungo lege egoerak maniobratzeko ahalbideratzen dituen eremu osoa ahalik eta gehien aztertu behar dela eta ahalik eta gehien zabaldu behar dela, euskal gizarteak erronkaren garrantziak eskatzen duen ekintzarako autonomia osoarekin jardun ahal dezan. Ahalegin hori egin ahal izateko, irudimen ahalegina egin behar da, inertziak gainditzeko, geldotasuna ukatzeko, jarduketa bide berriak, ez soilik pedagogikoak, didaktikoak eta teknologikoak, baizik eta politikoa eta legezkoak ere bai, etengabe bilatzeko ahalegina.

Eusko Alderdi Jeltzalearen ustez, horrez gain, beharrezkoa da Hezkuntza politikari buruzko legeek bideratutako gidalerroarekin, 1990-1994 legegintzaldiko eskola itunaren emaitza izan zena, aurrera egitea eta ondokoa ondo ulertzea: hezkuntza osoa gizartearen zerbitzura dagoen hezkuntza sistema bakarra dela eta horren barruan titulartasunak elkarren osagarri direla.

Gizartearen zerbitzura sistema bakarra dagoela eta hezkuntza zentroen eginkizuna autonomian, kurikulumaren malgutasunean eta eskaintza bereiztuan oinarrituta dagoela ulertzen badugu, hezkuntza sistemaren finantzaketa sistema berraztertu beharko da; hori egitean, ondoko irizpideak izan beharko dira kontutan: baliabideen urritasuna, gurasoek erantzukizunez parte har dezatela eta interesa erakuts dezatela sustatzea eta aukera berdintasuna egongo dela bermatzea.

Euzko Alderdi Jeltzalearen iritziz, hezkuntza sistemari buruzko gizarte eta politika eztabaida osoak kalitatearen eta hezkuntza sistemaren etengabeko hobekuntzaren kontzeptua izango du gai nagusitatzeko eta titulartasunean oinarrituriko ohizko eta alferriko eztabaida ideologikoak gainditu beharko ditu. Kalitateari esker, hezkuntza sistemak gaur egun Euzkadik dituen gizarte, ekonomi eta kultura erronka nagusiei erantzungo die, gure gizartearen etorkizuna horiek ahalik eta ondoen bideratzen datzalako.

Ezin dugu ahaztu hezkuntza sistema osoaren kalitatea etengabe hobetuz joan dadin, Unibertsitateak eragina eta erakargarritasuna erakutsi behar duela; hori lortu ahal izateko, unibertsitateak kalitatearen eta onenen elkarlehiarekiko begirunearen eremutik jardun behar du, baina gizarteak ez du sinetsi behar unibertsitate sistemak bere menpe gauza gehiegi dituela eta, beraz, bere jardunbideari, eginkizunei eta arazoei ez diela jaramonik egin behar. Horregatik, ezinbestekoa da EAJk euskal gizarteari eskaini nahi dion unibertsitate-egitasmo zehatzaren egituraketa burutzea. Unibertsitateak harreman etengabeak eta malguak izan behar ditu gure Herriko ekonomia, gizarte eta kulturarekin. Ezin du bere burua giro horietatik baztertu. Unibertsitateak gure Herriaren bizitzan izan behar ditu sustraiak. Unibertsitatearen lana eragingarria izatea lotura horren menpe dago. Bide horretan, Euskal Unibertsitatea etorkizunari begira ditugun premiarik handienetakoa dela aldarrikatzen dugu.

Kalitatezko eskola sistema bat, unibertsitate sistema barne, hiritar elebidunen prestakuntzan oinarritzen dena, hau da, beste hizkuntza batzuk dakizkiten, kultura arloan integratuta dauden, beraien aberriaren sustraiak eta unibertsala dena elkarren osagarri direla ulertzeko gai diren, beraien lanbidean gaiturik dauden eta edozein gizarteri etengabe agertzen zaizkion arazoak konpontzeko norberak asko egin ahal duela dakiten hiritarren prestakuntzan. Horixe da, hain zuzen ere, Eusko Alderdi Jeltzaleak egin duen apostua, eta apostu horrek hurrengo urteetako gizarte eta politika lehentasun nagusietako bat izan beharko du, azken batean euskal gizartearen, geure gizartearen apostua delako.